320 zenbakia. 1998ko apirilaren 24a. JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

# Berrigara



## Zirrararen hariak

Helduentzako Txotxongiloen Nazioarteko IV. Mostra

OPEL

TALLERES OLA
Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:
TAKOLO AUTOAK, S.L.
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa).
Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK



VENTANAS
SAN MIGUEL

Ibargarai 4 Tf. 76 12 21 Bergara
Iturrioz 24 Tf. 79 78 10 Arrasate
Errioxa 17 Tf. 945-25 88 92 Gasteiz

Zure ongizatea babesteko gaude



902 202 502

VENTANAS
SAN MIGUEL

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).
NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.
EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.
AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.
30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.

Probatu dituzu *Tartufoko terrazan* oilasko eta saiheski erreak?




ENKARGUAK
HARTZEN DIRA

**Datorren eguakitzetik aurrera, maiatzak 1, zabalik duzu terraza!**

San Juan auzoa, Elgetarako bidea,
Bergara. Tf. 76 35 51.

Tartufo Jatetxea



# Pakea

**Andres Osa "Sakona"** / Irakaslea

Hitzetik hortzera, ahoz aho, dabilen hitza da. Politikoek batik bat hitz jariokeriz erabiltzen duten hitza da. Gizarteko arlo eta maila guztietan pakea hitza nonahi entzuten da. Hainbeste bider entzuten dugunez, azkenean, gogaikarri egin zaigula ere aitortu behar. Pakea hitzak utopia den zerbait adierazi nahi du. Bertara heldu behar den jomuga. Desio haundi bat da. Erakargarritasuna eta irrika sortu behar duen sentipen nagusia.

Baina utopia, jomuga, desioa izan behar lukeena, gaur egun hitz antzua gertatu da. Erabiliaren puruz, hitz hutsa bihurtu da, inolako erakargarritasunik gabe. Alderantziz, gorrotagarri ere izateko bidean ote dihoan beldur gara.

Kasualitatez ote? Ez horixe! Pakea, pakea, pakea aldarrikatzen denean, hutsune baten edo askoren estalki bihurtzen da, okerkeria guztiak tapatzeko izaten da. Gauza ustelak estaltzeko hitz abstrakto bat besterik ez da zoritxarrez. Baina ez gaitezen engainatu, goiko jendeak maltzurkeriz eta intentzioz erabiltzen du.

Alienatzailea Marxen hitzetan. San Agustinek ere antzerako zerbait zioen: "pakea justizia barik sasi pakea da". Etxe eder bat izan nahi duenak, amets hori eskuratu nahi duenak, aurretik eraikitzeko behar diren gauza guztiak martxan jarri beharko ditu, osterantzean inoiz ez du izango aterperik. Pakearekin ere antzerako zerbait gertatzen ari da.

Pakea, justiziaren oskol bihurtu ordez askatasun ezaren, justizia ezaren, desberdintasunaren, hitz batez, ustelaren oskol gertatzen ari da eta emankortasuna eta erakargarritasuna galduz, antzukeriz gainezka dagoen hitza da.

Pakea ez da behin eta betirako egiten den zerbait. Pakea dinamikoa da. Ez da inoiz asetzen. Ibiliz, eginaz, lortzen da. Pakea jomuga da eta ez bitarteko soila. Pakea hitzetik hortzera erabili eta elkarrizketari uko egitea, hitz hutsak erabiltzea da. Horretarako erabili behar den bidea honako hau da: justizia landu, desberdintasunak zuzendu, askatasuna lortzen joan, elkarrizketa erabili, arazoak aztertu eta erantzuna ematen saiatu, okerra zuzentzen eginalak egin... Bide hori landuz, pakearen lorpena, benetako oskol babeslea izango dena, hazitzen ariko gara.

*"Pakea justiziaren oskol bihurtu ordez, justizia ezaren, desberdintasunaren, ustelaren oskol gertatzen ari da"*

Beno, ur hauek albora lagaz, Aste Santuko oporretan izan dugun eguraldia dela eta, eguraldiari aitormena egitera natorkizue. Inoiz baino eguraldi lasaigarriagoa izan dugula esaten ausartuko nintzateke. Denetarik izan dugu: grazia oneko euria, txingorra, elurra, haize zakarra eta gozoa, tximista eta trumoia eta lantzean behin eguzkiaren brintzak eta txori kanta. Zer nahi dugu gehiago? Naturaren ondasun guztia batera sentitzeko zoria izan dugu. Eta Musika Sakra entzuteko aukera izan dugu gainera. Nolatan, bada, eguraldiaz kexa izan? B

## barruan




**Julen Narbaiza**
Bedelkarreko presidentea

***"Bedelkarrek egiten duen lanaren emaitzak epe erdi eta luzera helduko dira"***

8. orrialdean.



**Aitor Zabaleta**
Auto pilotua

***"Asteburuan jokatuko den Ubriqueko igoeraren ibilbidea ez dut ezagutzen"***

22. orrialdean.



**J. M. Agirrezabal**
Pelukeroa

***"TVE-2ko dokumentalak ditut gustoko eta Sorpresa sorpresa, berriz, ezin dut ikusi"***

29. orrialdean.

# orain dela...

**BERGARAN GERTATUA**

***1899.*** Apirilaren 23an Prantzisko Agirreolea jesuita jaio zen Bergaran. Josulagunek argitaratzen zuten Jesusen Biotzaren Deya aldizkariko euskal idazleetako bat izan zen. Bazuen anai bat, hura ere jesuita eta idazlea, Luziano. 1965eko urtarrilaren 26an hil zen.

**EUSKAL HERRIAN GERTATUA**

***1857*****.** Apirilaren 19an Banco de Bilbao diruetxea sortu zen.
***1872*****.** Apirilaren 21ean II. Guda Karlista hasi zen.
***1921*****.** Apirilaren 24an "Argia" sortu zen, gerraurreko euskarazko astekari nagusia.

**MUDUAN GERTATUA**

***1956.*** Apirilaren 19an, Monacoko Rainiero printzea eta Grace Kelly aktoresa ezkondu ziren.

## zozketak

**BONO LOTO**
**Eguakitza 17**
1-8-9-32-35-44 (osag.12/er.3)
**Astelehena 20**
3-7-10-15-18-28 (osag.36/er.9)
**Martitzena 21**
3-15-19-22-25-31 (osag.42/er.0)
**Eguaztena 22**
1-7-10-24-36-37 (osag.35/er.2)

**PRIMITIVA**
**Zapatua 18**
6-12-37-39-40-46(osag.14/er.3)
**Domeka 19** ***Gordoa***
1-11-17-18-21-38 (osag.14/er.6)

**ONCE**
**Eguakitza 17:** 14.157 (K. seriea: 188)
**Astelehena 20:** 32.373
**Martitzena 21:** 03.164
**Eguaztena 22:** 94.275

**BESTE BATZUK**
**Bedelkar, harakinak:** 2.373
**M. Lagundia, REM 2, ikasbidaia:** 1.846. *Asteburua nekazal turismo etxea batean.*

## Eguraldia

*Igeldoko metereologi behatokia*



Zapatuan lainoak eta urdinguneak tartekatuko dira zeruan eta egunak aurrera egin ahala urdinguneak izango dira nagusi. Domekan hodeiak nagusituko dira eta euria egin dezake. Giroa hoztu eta haizeak iparretik joko du.

## Ilargiaren aldiak

Ilbehera: apirilak 19
Ilberri: apirilak 26
Ilgora: maiatzak 3
Ilbete: maiatzak 11

## Eguzkia

*Domeka, apirilak 26*

Sortu: 06:22
Gorde: 20:07

## Tenperaturak eta euria Bergaran

*Luis Mari Agirre*

| | max. °C | min. °C | *euria l/m²* |
|---|---|---|---|
| **Eguena 16** | 14 | 3 | *13,2* |
| **Eguakitza 17** | 10 | 5 | *32,7* |
| **Zapatua 18** | 13 | 2 | *1,3* |
| **Domeka 19** | 19 | 6 | *2,1* |
| **Astelehena 20** | 17 | 7 | *2,9* |
| **Martitzena 21** | 25 | 7 | - |
| **Eguaztena 22** | 20 | 8 | *1,2* |

# bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

**Asto zurixan tripara joan**

Ohera joan; esateko modu umoretsua.

*- Bueno, ni beste tragotxo bat jo eta asto zurixan tripara noia.*



JOSU OKINA

# hamaika ikusteko jaio ginen!

## Hipnosi kimikoa

Colombian, beraien zereginak aurrera eramateko formula berria topatu dute delinkuenteek: usainik eta zaporerik gabeko drogra hipnotiko berria. Janari eta edarietan ixur daiteke eta hartu ondoko hipnosi egoerak egunbeteko iraupena du. Gainera, hartzaileak ezin izaten du denbora epe horretan gertatua gogoratu. Oraingoz 500 bat lagunek aurkeztu dute salaketa Colombian.

## Farmaziak

**Eguakitza 24:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 76 19 63.*
Gauez: IRIZAR, *Arrasate. 79 12 39.*
**Zapatua 25:**
MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 76 12 15.*
Gauez: AMEZUA, *Arrasate. 79 09 74.*
**Domeka 26:**
MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 76 12 15.*
Gauez: ZABALA, *Arrasate. 77 16 30.*
**Astelehena 27:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 76 11 74.*
Gauez: RUIZ, *Arrasate. 79 14 09.*
**Martitzena 28:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 76 16 87.*
Gauez: MORALES, *Arrasate. 79 18 65.*
**Eguaztena 29:**
GUALLAR. *S. Antonio 5. Tf. 76 11 05.*
Gauez: AZKOAGA, *Arrasate. 79 15 15.*
**Eguena 30:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 76 19 63.*
Gauez: ESPAÑOL, *Arrasate. 79 14 88.*

## Ogia

**Domeka 26:** Ogizun.

## Telefonoak

| | |
|---|---|
| **OSASUNA / LARRIALDIAK** | |
| SOS deiak | 00 |
| DYA | 78 71 5 |
| Gurutze Gorria | 76 55 7 |
| Larrialdiak | 76 12 9 |
| Anbulatorioa (txanda) | 76 24 4 |
| Anbulantzia | 55 49 6 |
| Udaltzaingoa | 77 91 0 |
| Ertzaintza | 76 53 4 |
| Suhiltzaileak | 78 28 0 |
| Osasun Etxea | 76 24 4 |
| Arrasateko ospitala | 79 53 0 |
| Asepeyo | 76 16 4 |
| Pakea | 76 13 4 |
| Angiozarko medikua | 78 90 2 |
| Antzuolako medikua | 76 62 2 |
| **GARRAIOAK** | |
| Euskotren | 45 01 3 |
| PESA | 902 10 12 1 |
| Taxiak | 76 19 5 |
| RENFE | 28 35 9 |
| **UDALA** | |
| Udaletxea | 77 91 0 |
| Udal Artxiboa | 77 91 3 |
| Igerilekuak | 76 20 5 |
| Kultur Etxea | 77 91 5 |
| Liburutegia | 77 91 6 |
| Mizpirualde Egoitza | 76 13 6 |
| **BESTELAKOAK** | |
| Epaitegia | 76 14 9 |
| Erregistroa | 76 13 1 |
| Jardun | 76 36 6 |
| Jubilatuen Etxea | 76 21 4 |
| Postetxea | 76 26 8 |

# zorion agurrak


**Aixa El-Bani Altuna**
Apirilaren 27an
2 urte. Zorionak etxekoen partez!


**Miren Santa Cruz Kapanaga**
Apirilaren 29an
6 urte. Zorionak etxekoen partez!


**Ibai Mujika**
Apirilaren 26an
4 urte. Zorionak etxekoen eta lehengusuen partez!


**Ainhoa Mujika**
Apirilaren 19an
10 urte. Zorionak etxekoen eta lehengusuen partez!


**Itziar Casanellas**
Apirilaren 25ean
6 urte. Zorionak! Gurasoak eta Irantzu.


**Irantzu Casanellas**
Apirilaren 22an
4 urte. Zorionak! Gurasoak eta Itziar.


**Iñigo Moreno**
Apirilaren 25ean
16 urte. Zorionak gurasoen eta anaia Mikelen partez!


**Jone Eguren**
Apirilaren 26an
3 urte. Zorionak gurasoen eta familiakoen partez


**Aitziber Aranzabal**
Apirilaren 23ean
23 urte. Zorionak lagunen partez!


**Olatz Aranzabal**
Apirilaren 23ean
23 urte. Zorionak lagunen partez!


**Gorka Artola Alberdi**
Apirilaren 23ean
9 urte. Zorionak eta urte askotarako!


**Garazi Agirrezabal**
Apirilaren 26an
2 urte. Zorionak familiakoen partez!


**Oihane Agirre**
Apirilaren 21ean
7 urte. Zorionak gurasoen eta anaia Unairen partez!


**Paul Azkargorta**
Apirilaren 30ean
2 urte. Zorionak aitona-amonen eta lehengusuen partez!


**Ane Lorea Larrañaga**
Apirilaren 28an
5 urte. Zorionak etxekoen partez!


**Pascua Garcia Familiar**
Apirilaren 29an
61 urte. Zorionak familiakoen partez!


**Nieves Garaioa Lebrero**
Apirilaren 23an
37 urte. Zorionak familiakoen partez!


**Leire Morais Garaioa**
Apirilaren 27an
11 urte. Zorionak familiakoen partez!


**Aitor Anton**
Apirilaren 24an
23 urte. Zorionak etxekoen eta Sorayaren partez!


**Xabier Zabaleta**
Apirilaren 11n
19 urte. Zorionak koadrilakoen partez!


**Ioseba Lasa**
Apirilaren 27an
13 urte. Zorionak gelakoen partez!


**Jone Larrañaga**
Apirilaren 27an
5 urte. Zorionak familiakoen partez!


**Marzelino Garmendia**
Apirilaren 26an
85 urte. Zorionak aitxitxa! Familiakoak.


**Jose Mari Agirrebeña**
Apirilaren 22an
urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak.


**Jabi Martinez**
Apirilaren 21ean
13 urte. Zorionak gelakoen partez!


**Kristina Martinez**
Apirilaren 21ean
13 urte. Zorionak gelakoen partez!


**Aitor Etxaniz**
Apirilaren 27an
6 urte. Zorionak etxekoen partez!


**Maider Unamuno**
Apirilaren 25ean
23 urte. Zorionak etxekoen partez!


**Miren Zubizarreta**
Apirilaren 21ean
30 urte. Zorionak! Gotxi eta Jabi.


**Irati Sanz**
Apirilaren 28an
urtebete. Zorionak Amama Arazeli eta familiakoen partez!


**Naiara Bernal**
Apirilaren 19an
14 urte. Zorionak koadrilakoen partez!


**Asier Egaña**
Apirilaren 24an
11 urte. Zorionak Eneko anaiaren partez!


**Eneritz Eguren**
Apirilaren 27an
15 urte. Zorionak Julen eta Aitorren partez!.


**Ainhoa Agiriano**
Apirilaren 28an
5 urte. Zorionak etxekoen partez!


**Jokin Rodriguez**
Apirilaren 18an
urtebetetzea. Zorionak familia eta Ikerneren partez!


**Arantzau Garitano**
Apirilaren 23an
24 urte. Zorionak koadrilakoen partez!

## hildakoak

**BERGARA**

**Segunda Gallo**
Apirilak 17, 77 urte.

**Cipriana de Castro Mata**
Apirilak 19, 91 urte.

## jaiotakoak

**BERGARA**

**Aitor Zurro Arrazola.**
Martxoak 13.

**Elisa Andrinua Irazabal.**
Martxoak 14.

**Iker Gallego Torres.**
Martxoak 18.

*ESKER ONA*

## Agustin Muguruza Lizaso

*Agarre baserrikoa*

Bergaran hil zen
1998ko apirilaren 2an,
84 urte zituela.



*Hileta elizkizunetara joan zinetenoi eskerrik asko familiakoen partez.*

# ANTZERKIA

▶ **Legaleon T** taldearen "Merilú, historia de una muñeca hinchable" bihar zapatua 19:30etan Oñatiko Gaztelekuan.

▶ **Leo Bassi** "Instintos ocultos" ikuskizunarekin domekan 19:30etan Arrasateko Amaian.

# MUSIKA

▶ **Miel de hiel** eta **Fly Shit** gaur 21:30etan Jam aretoan. 500 pezeta.

▶ **Bestias** eta **Matadors** taldeak gaur eguakitza 22:30etan Oñatiko Gaztelekuan.

▶ **Polito Ibañez** kantari kubarra bihar zapatua, eguerdian Pol-Polen.

▶ **Xun Xume** abesbatza, Musika Eskolako haurren abesbatza eta Orfeoi Gaztearen emanaldia bihar zapatua 19:00etan Zabalotegiko aretoan.

▶ **Udal Musika Banda** domekan 12:30etan Udal Pilotalekuan.

# ERAKUSKETAK

▶ **Mikel Diez** eta **Estefania Erro**ren oroimenezko txotxongilo erakusketa Kultur Etxean.

JAIAK

## *Elorregiko jaiak*

**Erromeria: zapatuan 22:00etan**
**Dantza saioa: domekan 12:00etan**

Auzoetako jaiek aurrera darraite eta astebukaera honetan Elorregi auzoari dagokio San Prudentzioren omenezko jaiak ospatzea. Gaur eguakitza, gaueko 10etatik aurrera, tute eta mus txapelketak jokatuko dira Elorregiko Alkartasuna elkartean. Parte hartzeko interesa duten bikoteek orduerdi lehenago izena eman beharko dute elkartean bertan. Bikote onenek sari bikainak eskuratuko dituzte.

Bihar zapatua, berriz, 14:00etan auzo bazkaria izango da Alkartasunan. Bazkalostea Peñagarikano eta Sarasua bertsolariek alaituko dute eta Roberto eta Kepa trikitilariak ere Elorregin arituko dira egunean zehar. Gauean, 10etatik aurrera, auzo erromeria izango da.

Domekan goizeko 11etan Alai-Taldeak lagundutako Meza Nagusia izango da Elorregin eta eguerdian Moises Aspiazu dantza taldearen saioa. Jarraian pilota partiduak jokatuko dira. Azkenik, astelehenean, San Prudentzio egunean, Meza Santua izango da 19:00etan.

Auzoko jaiekin jarraituz esan, zalantzan egon badira ere, azkenean Labegaraietako jaiak ospatuko direla datorren astebukaeran. Jai egitaraua ez da beste urte batzutakoa bezain deigarria beharbada baina hainbat ekitaldi izango dira datorren eguakitzean eta zapatuan. Besteak beste, eguakitzean, mezaren ondoren, bertsolari eta dantzarien saioa izango da eta arratsaldez plater tiraketa jokatuko da. Zapatuan, txirrindulari lasterketaren XXVI. edizioa jokatuko da eta gaueko 10etan auzo afaria egingo da Zabala jatetxean. Beraz, aurten ere jai giroa ez da faltako Labegaraietan. B



Trikitalariak izango ditugu Elorregin giroa alaitzen. ARTXIBOA

▶ **Oihana Garitano**ren margoak Nahikarin.

# IKASTROAK

▶ **Saltsa eta merenge** ikastaroak Jam-en, astelehen eta ostegunetan 19:30etatik 20:30etara. Izenematea Jam-en (76 35 81).

# LEHIAKETAK

▶ **I. Abdon Juaristi Pintura Lehiaketa.** Kartelen gaia zezenak eta Bergara izango da. Lanak apirilaren 30era arte jasoko dira Kultur Etxean.

# DEIAK

▶ **Elgeako zentral eolikoa**ren aurkako martxa

ZUBIETA
elektragintza
MOTORREN BOBINAKETA, ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK.
Kruz Gallastegi 2 behea
☎ 76 23 48

Amillaga, gasolindegi ondoan. Tf.: 76 57 34
ZABALETA
ERROTULOAK
Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...

ARGI PLASTIC
PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, ateak, manparak...
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik
Erakusketa: Masterreka 14 behea
BERGARA
Tf.: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

domekan. Bergaratik irteera 8:30etan Beheko Estaziotik.

▶ **Joxean Artze**ren poesia emanaldia martitzenean 19:30etan Oñatiko Santa Ana aretoan.

▶ **Pello Zabala**ren "Metereologia eta tenporak" hitzaldia eguaztenean 17:00etan Jubilatuetan.

▶ **"Sekula ez eurak gabeko Mexikorik"** izenburuko ihardunaldiak Oñatin. Chiapasi buruzko argazki erakusketa maiatzaren 3ra arte kiroldegian; eguaztenean, Rodolfo Izal apaizak "Chiapas eta zapatismoa" izenburuko hitzaldia emango du 21:00etan Santa Ana aretoan eta eguenean, rock jaialdia Doctor Deseo eta Latzen taldeekin, 22:30etan Zubikoan.

▶ **Odol ateraldia** eguaztenean, hilak 29, 18:30etan.

▶ **Opel Astra** berriaren aurkezpena gaur eguakitza 19:30etan Ola Tailerretan.

▶ **"Hiru haundixek hiru egunetan"** gazteei zuzendutako mendi irteera apirilaren 30etik maiatzaren 3ra. Izen-ematea (6.000 pezeta) astelehena baino lehen AED elkartean. 71 21 17.

▶ **Rolling Stones** taldea ekainaren 18an San Mamesen ikusteko irteera antolatu du Jam-ek. Argibideak: 76 35 81.

▶ **Xipizaro ludoteka**k antolatutako udalekuetan parte hartu nahi duten haurrentzat izena emateko epea maiatzaren 4tik 16ra bitartean izango da zabalik, 10:00etatik 12:00 ludotekan. Bestalde, udalekuetan begirale lanetan jardun nahi dutenek hil honen amaierara arte eman dezakete izena Xipizaron (76 23 76).

▶ **San Joxepe**k La Perla bainuetxera joateko autobusa antolatu du maiatzaren 11, 13, 15, 18, 20 eta 22 egunetarako. Era berean, ekainaren 8tik 11rako Asturiasen egonaldia antolatu da. 19.900 pezeta. Argibideak eta izen-ematea Jubilatuetan (76 21 40).

## KINTADAK

▶ **1965**ean jaiotakoen afaria maiatzaren 2an Gaspar jatetxean. Izen-ematea Etxagi, Aldoka-Maldoka edo Pol-Pol tabernetan egin daiteke.

▶ **1942**an jaiotakoen afaria maiatzaren 9an Azpeitxi jatetxean. Izen-ematea hilaren 3a baino lehen Mizpildi okindegian, Edel tapizdendan edo Lonbide zapatadendan.

▶ **1963**an jaiotakoen bazkaria maiatzaren 16an Antxonin. Izen-ematea Ariznoa eta Kortazar tabernetan maiatzaren 11 baino lehen.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

**ARRASATE. Alai zinema**
**Atrapada entre dos hombres**
Eguakitza: 22:00.
**Flubber y el profesor chiflado**
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena: 19:00, 21:00.

**EIBAR. Unzaga**
**Hard rain**
Eguakitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

**EIBAR. Rialto**
**Washington Square (La herencia)**
Eguakitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**OÑATI. Santana**
**Desmontando a Harry**
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
**Persiguiendo a Amy**
Eguena, zine-kluba: 20:00.

**ANTZUOLA. Gazinema**
**Las dos caras de la verdad**
Eguakitza: 22:00.
**Peter Pan**
Domeka: 16:30.

**ELORRIO. Arriola**
**The Boxer** (aurretik **"Txotx"** laburmetraia emango da)
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.
**La mirada de Ulises**
Eguena, zine-kluba: 20:15.

**AZKOITIA. Baztartxo**
**Medidas desesperadas**
Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 22:00.
**Desmontando a Harry**
Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

### WASHINGTON SQUARE

***Zuzendaria***: *Agnieszka Holland.*
***Aktoreak***: *Jennifer Jason Leigh, Albert Finney, Maggie Smith.*
William Wyler zuzendari ospetsuak Henry James idazlearen nobela pantailaratu zuen 1949an ("La heredera"). Azken bertsio honek badirudi testu orijinala gehiago errespetatu duela. Agnieszka Holland zuzendari ospetsuak (*Europa, Europa*) neurririk gabe bere aita maite eta ordainean mezprezurik handiena jasotzen duen gaztearen gorabeherak azaltzen dizkigu.

### FLUBBER Y EL PROFESOR CHIFLADO

***Zuzendaria***: *Les Mayfield.*
***Aktoreak***: *Robin Williams, Marcia Gay Harden, Christopher McDonald, Raymond Barry.*
*Philip Brainard* noraezean dabil eta *Sara*rekin ezkondu behar izana ere ahaztu du birritan. *Brainard* maisua burubelarri ari da lanean bere proiektu berrian, *Weebo* errobota martxan jarri nahirik. Azkenik, ezkontzear dagoen egun berean, edozein objetu abiadura handian hegaran jartzen duen sustantzia bat asmatuko du...



BERRIGARAk ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkalea 29 BERGARA

LASAGABASTER
ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.
Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 79 27 27 / 79 13 55

**Azken batzar orokorrean, Bedelkarreko presidente berria izendatu zuten Julen Narbaiza. Berarekin batera Patxi Berraondo (presidenteordea), Rosarito Garitano (diruzaina) eta Sebastian Imaz (idazkaria) daude zuzendaritzan. Herriko dendarien elkarteak bost urte bete ditu jadanik eta gaur egun 155 bazkide dauzka.**

## JULEN NARBAIZA
### Bedelkarreko presidentea

# *"Bedelkarrek egiten duen lanaren emaitzak epe erdi eta luzera helduko dira"*



Azken batzarrean Bedelkarreko presidente izendatu zuten Julen Narbaiza.

**G.** Zein da orain arte Bedelkarrek egindako lanaren balorazioa?

**E.** Nik uste dut zailena egin dugula, elkartea martxan jartzea alegia. Gutxienez jendeak ezagutzen du Bedelkar eta orain hasierako lanari jarraipena eman behar zaio. Nire ustez, emaitzak epe erdi eta luzera helduko dira. Beharbada jende askori Bedelkar martxan jartzeak ez dio ezer suposatu baina, zuzenki ez bada ere, guztion onerako da Bedelkar bezalako elkarte bat egotea. Pixkanaka gauza txikiak egiten ari gara, etorkizunerako baliogarriak izango direlakoan.

**G.** Hala ere, badirudi hasierako ilusioa eta partehartzea gutxituz joan direla. Azken batzarrean oso jende gutxi izan zen.

**E.** Beharbada jendeak emaitzak berehala jasotzea esperoko zuen eta baliteke ilusio piskat galtzea. Dena den, bazkideei begiratuta, kopuruak gora egin du eta hori ere baloratu beharra dago. Azken batean, herrian erroldatua egotea bezala da Bedelkarreko bazkide izatea; epe luzera onuragarria da. Bedelkarrek hainbat gai tratatzeko orduan askoz ere indar gehiago dauka banaka joanda baino; eta, bestalde, bazkideei zuzendutako ekintzak antolatzen dira noizean behin, informatika ikastaroak edota euroak ekarriko dituen aldaketei buruzko hitzaldiak, esate baterako. Hala ere, oraindik ere badira elkartean integratuta ez dauden sektore batzuk eta horiek erakartzen ahalegindu behar gara.

**G.** Inguruko herrietako elkarteekin harremanik baduzue?

***"Bazkideen aldetik inplikazio gehiago lortzea interesgarria litzateke. Hori lortzen badugu, emaitzak etorriko dira atzetik"***

**E.** Bai, hilero Oñati eta Arrasateko komertzianteekin biltzen gara eta oso harreman onak ditugu eurekin. Antzeko arazoak ditugula esan daiteke. Herrietako bizitza komertzialak behera egin du azkenaldian eta erosleak berreskuratzeko aukerak aztertu behar ditugu. Horretarako ez dago formula majikorik baina interesgarria litzateke bazkideen aldetik inplikazio gehiago lortzea gauzak antolatzeko orduan. Hori lortzen badugu emaitzak etorriko dira atzetik. Ordizian adibidez dendariek herrian dinamismoa piztea lortu dute gauza erakargarriak antolatuz eta gu ere benetan interesgarriak diren ekintzak egiten saiatu behar gara; azken batean herri batean funtzionatzen duenak albokoan ere antzeko erantzuna izaten du. Bergaran ez daukagu gauza handiak egiteko azpiegiturarik baina gauza politak egin daitezke.

**G.** Hemendik laster, maiatzaren 12an, San Pankrazio ospatuko duzue...

**E.** Joan zen urtean ere ospatu genuen eta jendearen aldetik jasotako erantzuna oso ona izan zen. Komertzianteen patroia denez, Bedelkarreko denda guztietan erosleek detailetxoren bat jasoko dute. Bestalde, asmo berrien artean, sari zuzeneko boletoak kaleratu nahi ditugu aurten.

**G.** Bukatzeko, zein da zuen kezka nagusia orain?

**E.** Aparkalekuen arazoak guztioi eragiten digu. Komertzioa bultzatzeko beharrezkoa da kotxez etortzeko eta aparkatzeko aukera eskaintzea eta gaurko egoera alde horretatik nahiko txarra da. Eibarren eta Arrasaten adibidez parkingak zabaldu dituzte eta hemen ere arazo horri irtenbidea topatzea komenigarria da. B

# Erabateko erantzuna industrian sindikatuen lanuzterako deiak

## Udalbatzak ez zuen onartu 35 orduko lanaldiaren mozioa

**Sindikatuek atzorako deitutako ordubeteko grebak erabateko eragina izan zuen Bergara eta Antzuolako lantegietan.**

Enpresa komiteak dituzten lantegi haundi guztietan, behintzat, greba egin zuten eta baita lantegi txiki askotan ere. Ostalaritzan, berriz, eragin ezberdina izan zuen greba deialdiak: taberna, denda eta supermerkatu batzuk itxi egin zuten, tartean Eroskik, baina beste asko zabalik izan ziren. Udaleko langileek eta eskola publikoko ikasle eta irakasleek ere lanuztea egin zuten. Eguerdian, manifestazioa egin zuten ikasleek eta iluntzerako sindikatuek deitutako beste manifestazio bat egitekoa zen.

Jose Luis Loidik, LABeko ordezkariak, lanuztearen balorazio positiboa egin zuen: "ordubeteko lanuzte hau, entsaiu moduko bat izan da. Patronalak eta administrazioak lanuzteak izan duen eragina aintzat hartu beharko lukete, honen ondorengoa greba orokorra izan daitekeelako".

### Sindikatuen mozioari ezetza

Bestalde, sindikatuek 35 orduko lanaldiaren alde aurkeztutako mozioa ez zuen onartu Udalbatzak astelehenean. Mozioak zera eskatzen zuen: gizarte-eragileei eta administrazioei, sektore pribatuan astean 35 orduko lanaldia eta sektore publikoan 32 ordukoa izateko, beharrezko neurriak aplikatu ditzatela eskatzea; lanik ez dutenentzat edo diru sarrera eskasak dituztenentzat oinarrizko errenta ezartzea; Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako parlamentuei 35 orduko lanaldia lortzeko lege ekimenak bultzatu ditzatela eskatzea, eta atzorako, eguena, konbokatuta zegoen ordubeteko lanuztearekin bat egitea. Mozioa ez zen onartu hiruko gobernuko alderdiek ezezkoa eman zutelako. HBk alde bozkatu zuen.




Udaleko langileek ere bat egin zuten sindikatuen lanuzte deialdiarekin.

Sindikatuen mozioa bozkatu aurretik, EAk aurkeztutako mozio alternatiboa bozkatu zen eta hau ere ez zen onartu; EAJ, HB eta PSE-EEk ezezko botua eman zuten. EAren mozioa sindikatuek aurkeztutakoaren antzerakoa zen, baina 35 orduko lanastea modu progresiboan eta gizarte eragileen ahalik eta adostasun mailarik haundiena lortzen ahaleginduz ezartzea eskatzen zuen.

Boto esplikazioan, Jesus Mari Garitanok, HBren izenean, EAk mozio alternatiboa aurkeztu izana kritikatu zuen eta kontu honetan logikoena indarrak batzea eta gehiengo sindikalak aurkeztutako mozioa onartzea zela esan zuen. Bestalde, neurri neoliberalen ondorioz langabeziak eta patronalaren irabaziak gora egin izana kritikatu zituen, lanastea murriztearen alde agertu zen eta sindikatuen eskaerekin bat etorri zen.

**Ostalaritzan eta zerbitzuen alorrean, berriz, eragina ezberdina izan zen**

Alvaro Esparzak (PSE-EE), bestalde, sindikatuen eskaeren filosofiarekin bat zetorrela esan zuen, baina lanaldiaren murrizketa eztabaidatzeko udaletxeak ez direla foro egokiak eta horretarako Legebiltzarra zegoela esan zuen. Era berean, aparteko orduen kontra eta lanaren banaketa egokiaren alde azaldu zen.

Koldo Pereirak (EAJ), azkenik, sindikatuen eskaerak jasotzen dituen proposamena Legebiltzarrean eztabaidatzen ari direla esan zuen eta 35 orduko lanastea, lanpostuak sortzeko neurri egokia ez dela adierazi zuen, lehiakortasuna galtzen delako. 35 orduko lanastea herrialde garatuetan indarrean kasu gutxitan jarri dela esan zuen eta kontu hauek sindikatu eta patronalaren arteko negoziazioetan adostu behar zirela adierazi zuen.

Pleno aretoan sindikalista ugari bildu zen eta Plenoan berba egiteko aukera ematea eskatu zuten sindikatuetako ordezkariek; alkateak ez zien hitzik eman eta bildutakoak Pleno aretoa laga egin zuten.

HBko zinegotziak sindikatuetako ordezkariekin batera alde egin zuten Pleno aretotik. B

# Trenbide zaharraren ibilbidea konpontzeko asmoa du Udalak

**Bergarako Udalak** Goiko eta Beheko trenbide zaharretako ibilbide guztia konpontzeko asmoa azaldu du. Trenbide zaharra jende askok erabiltzen du, pasiatzeko edo antxintxikan egiteko batez ere, eta ibilbidea ez dago egoera onean: zoruan zulo dexente daude hainbat zatitan eta gauez ibiltzeko argirik ez dago.


Udalaren asmoa trenbide zaharra tramoka konpontzea da.

Udalaren asmoa Inemekin hitzarmena sinatu eta langabezian dauden langile batzuk kontratatzea da trenbidearen Bergarako zatia txukuntzeko. Oraindik eperik ez dago, baina konponketa tramoka egingo litzateke, jendeak gehien erabiltzen duen zatiekin hasita. Lehen fasean, Boluko zubitik Murinondoko bideguruтzeraino doan zatiaren konponketa egingo litzateke. Lehen fase honetako aurrekontua 3'5 milioikoa da. B

## Odol emaleen eguna domekan

**Gipuzkoako** 800 bat odol emale bilduko dira domekan Bergaran. Anai arteko eguna ospatzeaz gain, XXXIII. Batzar Nagusia egingo du Odol Emaleen Elkarteak Bergaran. Santa Marinan meza entzun ostean, batzarra egingo da eta 25 eta 50 odol ateraldi izan dituztenei dominak banatuko zaizkie. Eguerdiko 12:30etan Udal Musika Bandaren kontzertua izango da Udal Pilotalekuan eta arratsaldeko 14:30etan, bazkaria Labegaraieta kiroldegian, bazkalostean dantzaldia izango da. B

## Correoseko langileak greban Posta Legearen kontra




**Posta Legearen** aurka, hainbat protesta ekintza egiten ari dira postetxeko langileak. Joan zen apirilaren 6, 7 eta 8an greba egin zuten goizeko 9:30etatik 12:30ak arte eta datorren astelehen eta martitzenean berriz ere konbokatuko dute lanuztea. Eguaztenerako, ostera, egun osoko greba konbokatu du Postako Plataforma Sindikal Unitarioak (CC.00, UGT, ELA, LAB eta ESK-CUIS).

Madrileko gobernuaren Posta Legearen kontra, prezio egokidun posta publikoaren alde, posta zerbitzua Euskal Herriko bazter guztietara iritsi dadin eta euren lanpostuei eusteko protesta egiten ari dira Correoseko langileak. B

## Pazkuetan txoznak jartzeko eskaerak egiteko aukera

**Bergarako** jaietan Bideberrin txoznak jartzeko eskariak egiteko epea maiatzaren 8ra arte zabalik izango da. Irabazi asmorik bareko entitate edo elkarteek egin ahal izango dituzte eskariak. Eskaera orriak eta baldintza pleguak udaletxeko idazkaritzan jaso daitezke. B

OILAGORRA TABERNA
Barrenkalea 21 BERGARA

GURIDI altzariak
Era guztietako altzariak
Artekalea 8 Tf. 76 31 02

Biko
BOKATEGIA
Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerra.
Tf. 76 71 19

ARREGI
Eraikuntza materialeak
Biltegia Tellerian, Labegaraietan
Tf. 76 27 93

# Irala zinearen arazoa datorren astean konpondu daiteke

## Jabeek eta Udalak hitzarmen berria sinatuko dute

**Irala zinea** zegoen lursailetan etxeak eraikitzeko Udalaren eta zinearen jabeen arteko hitzarmena sinatuko da datorren martitzenean seguruen. Victoriano Gallastegi alkateak ez digu hitzarmenaren zehaztasunik eman, sinatu arte ezer aurreratzerik nahi ez duelako. Halere, aurreratu digu hitzarmena sinatu bezain laster, etxeak eta lokal komertzialak eraikitzeko proiektua aurkeztu beharko dutela jabeek.



Irala zinea 1996aren urte amaieran hasi ziren botatzen.

Alkateak eta Jose Manuel Irizar eta Jesus Quemadak, Espectáculos Bergara S.A.ko ordezkariak (Irala zinearen jabeak), hitzarmena sinatu zuten 1996ko otsailean Irala zinea bota eta bertan lokal komertzialak, bulegoak eta garajeak egiteko. Udalak Iralako lursailak birkalifikatuko zituen eta Espectáculos Bergara S.A.k 18 milioi pezeta ordainduko zizkion Udalari, zegokion %15eko aprobetxamenduaren eta erabilera aldaketaren ordainetan.

Irala 1996ko urrian bota zuten (1986. urtean itxi zen zinea), baina zimentazio arazoak izan zituzten eta hasieran uste baino diru gehiago ordaindu behar izan zuten jabeek zinea bota eta zimendatze lanak egiteagatik. Zazpi milioi pezetako aurrekontua zuten lanok egiteko eta 27 gastatu zituzten. Lehen hitzarmenean jasotzen zenez, zinea bota ostean, 10 hilabeteko epea izango zuten Iralako jabeek edifizio berriaren proiektua Udalean aurkezteko. Irala zinea bota zutenetik urte eta erdi inguru pasa bada ere, ez dute eraikin berriaren proiekturik aurkeztu eta Udala arazoari irtenbideren bat aurkitu nahian ibili da denbora horretan.

Iralako jabeek apartahotelak egiteko ikerketa bat ere egin zuten, baina ez zioten biabilitaterik aurkitu eta, azkenean, etxeak, garajeak eta lokal komertzialak egiteko hitzarmen berria sinatuko da datorren astean. Lehengo Iralaren bolumen bera hartu beharko du eraikin berriak eta hiru solairuko edifizioa egingo da: lokal komertzialentzako beheko solairua, eta etxeentzako lehen eta bigarrenak. B

## Materiala biltzeko Caritasen oharra

**Caritasek** Sierbetako lokalean jaso ohi duen erropa egokitzeko tailerra martxan jarriko du. Egunotan, beharrezko tresna eta baliabideak biltzeari ekin dio. Besteak beste, labadora bat, zentrifugadora bat, bi plantxa, josteko makina, arroparentzako kurpildun barrak, pertxak, metalezko estanteriak, ordenagailu bat eta bulegoko materiala dira beharrezkoak tailerra martxan jartzeko. Edozein eskaintza egiteko interesa dutenek Sierbetara joan (eguazten edo eguenetan, 16:00etatik 18:00etara) edota Caritaseko ordezkariengana zuzendu daitezke. B

## Txapa Irratiak bi astez etengo ditu emanaldiak

**Txapa Irratiak** bere emisioak eten egin behar izan ditu antenako kablea apurtu egin delako. Konponketak dirauten bitartean (aste pare bat), ez da emisiorik izango. Entzuleei barkamenak eskatu nahi dizkie Txapa Irratikoek. B

## Iaz baino turista gehiago Aste Santuko oporretan Bergaran

**Xabier Aranburu** Udal museologoaren datuen arabera, aurtengo Aste Santuan 265 kontsulta jaso dira Turismo Bulegoan; beraz, iaz baino 21 kontsulta gehiago jaso dira eguraldi kaskarra izan dugun arren. Bergararren 49 kontsulta jaso dira, 69 Euskal Herriko beste toki batzuetatik etorritakoenak izan dira, 76 estatutik etorritakoenak eta 69 europarrenak. Estatuko herrialdeetatik etorritakoen artean, 33 Kataluniatik etorritakoenak izan dira, 5 madrildarrenak eta 33 beste toki batzuetatik etorritakoenak.

Nabarmentzekoa da gero eta katalan gehiagok (iaz baino 20 gehiago) eta gero eta madrildar gutxiagok (iaz 18 izan ziren) bisitatzen dutela Bergara. Europarren artean, Alemaniatik etorritakoen 50 kontsulta jaso dira, 4 Eskoziatik etorritakoak izan dira, 3 Ingalaterratik etorritakoak, 2 Dinamarkatik eta beste 2 Italiatik. Bestalde, gero eta gehiago ei dira Bergaran jan eta lo egiteko tokiz galdetzen duten kanpotarrak. B

# Berrigara

320 zenbakia.
1998ko apirilaren 24a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**
**Telefonoa: 76 03 97. Faxa: 76 29 77**
**E.mail: berrigar@sendanet.es**
**Argitaratzailea: JARDUN Elkartea**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.
**Erredakzioa:** Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
**Publizitatea:** Kristina Romero.
**Harpidetza:** Gorka Elortza. **Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
**Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia:
Green Ginger.

Tirada: 5.100 ale.



Copyright: BERRIGARA.



Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599



BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**Erakunde hauen laguntzaz:**

**Bergarako Udala** — **Gipuzkoako Foru Aldundia** — **Eusko Jaurlaritzako Kultura saila**


gutunak

**Iritzi, protesta edo desioren bat adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).**

## ESKERRIK ASKO EMANDAKO LAGUNTZAGATIK

Euskal presoen eskubideak betetzen ez direla eta, 1996an Bergaran Euskal Presoak Euskal Herrira taldea sortu genuen. Lana egunerokoa den arren, taldearen presentzia eta bultzatzen ditugun helburuak Bergarako herrian adierazgarriak diren egunetan zuenganatu nahi izan ditugu.

Ekintza horien artean daude, besteak beste: tabernetako sinadura bilketak, larunbat goizetan herrian eta auzoetan (Matxiategi, Labegaraieta, Angiozar, Osintxu eta Elosu) jarritako mahaiak; San Martzial egunez ateratako kamisetak... Eta guztiok gogoan izango duzuen bezala azken Erramu Zapatuan herriko kolektibo ezberdinei euren atxekimendua eskatu zitzaien.

Honako hauek dira laguntza eskaini zuten taldeak: Euskara talde ezberdinak, talde nahiz pertsona mailan (AEKko, EHEko, Udaleko Euskara Zerbitzuko, Jarduneko eta Udal Euskaltegiko zenbait kide); partidu politikoak (Zutik, HB); Elkarri; Sindikatuak (ELA, LAB, EHNE eta CCOO); kultur taldeak (Kukuma, Taun Taun eta Txapa Irratia); eta Etxanizen aldeko plataforma.

Jakinarazi nahi dizuegu orain arte guztira 2.456 sinadura bildu ditugula. Aurrerantzean, sinadura bilketa hau albora utzi eta beste ekintza mota batzuk aurrera eramaten saiatuko gara.

Mila esker zuen laguntza eskaini diguzuen guztioi. Taldea zuen iritzi eta parte hartzeari irekita dago eta denon artean euskal presoen eskubideak betetzea lortuko dugulakoan, euskal presoak Euskal Herrira!

*Bergarako Euskal Presoak Euskal Herrira taldea*

### *OHARRA*

*Datorren asteko Berrigara 321 zenbakia, eguenean (apirilak 30) jasoko duzu zuenean, eguakitza (maiatzak 1) jaieguna da eta.*

tira birak: **unai azkarate**



atrebentzia ezpada

## Telebista programaziotik, zein da zure programarik gustokoena? Eta gutxien gustatzen zaizuna?



### Tamara Jara

Tele 5-ko *Cronicas marcianas* gustatzen zait, ia egunero ikusten dut eta ondo dago. Eta gutxien, *La botica de la abuela*, TVE 1-ean ematen dutena.



### Agustin Perez

Ez dut telebista gehiegi ikusten baina informatiboak ikusten ahalegintzen naiz. Eta gutxien talk-show horietakoak, Anaren programaren antzekoak.



### Eneida Orbea

Telesailak nahikoa gustatzen zaizkit, Tele 5-ko *Medico de familia* adibidez. Ez dut beti ikusten baina ondo dago. Jose Luis Moreno berriz ez zait batere gustatzen.



### Valentin Kalboetxeaga

Domeketan Tele 5n ematen duten *Caiga quien caiga* oso dibertigarria iruditzen zait. Bestalde, *Sorpresa, sorpresa* ezin dut ikusi, programa gorrotagarria da.



### Virginia Orrantia

Zaila da programaren bat destakatzea. *Al salir de clase* eta *Cosas de casa* telesailak atsegin ditut, Anaren programa ere bai. Gutxien, *Quien sabe donde*.



### Juanjo Alkorta

Oso gutxi ikusten dut telebista, ez nau erakartzen. *Cronicas marcianas* eta *Quien sabe donde* nabarmenduko nituzke beharbada onerako eta txarrerako.

bai, esan!

**Gertaera edo ekintzaren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.**

**Mikel Elkoroberezibar**rek deitu digu igerilekuei buruzko pare bat kexa azaltzeko. Hain zuzen ere, igerilekuetan jarrita egoten den musikari buruz berba egin digu Mikelek. Berak dioenez, hari musikaletik "jitanadak", "andaluzadak", rantxerak, tunoek kantatutakoak eta horrelakoak bakarrik entzuten dira eta ez dute inoiz jartzen euskal musikarik. Bestalde, igerilekuetako gimnasioko idazkiak eta makinetako instrukzio-orriak gazteleraz, frantsesez edo ingelesez daude eta ez dago bat bera ere euskaraz idatzita. Mikelek igerilekuetan musika zaintzea eta euskararen presentzia haundiagoa izan dadila eskatzen du.

ikuspuntua: **jon altuna**

## *Apirilak 26*



Gauza asko gertatu dira apirilaren 26an. Duela 61 urte españolek, alemanen laguntzaz, Gernika bonbardeatu zuten, ferian zeuden hainbat euskaldun hilaz; duela 12 Chernovileko zentral nuklearrean istripu larria izan zen; duela hiru ETAk alternatiba demokratikoa plazaratu zuen...

Egunero ari dira Euskal Herria bonbardeatzen; euskaldunon aurka legez kanpoko jokaerak "normalak eta beharrezkoak" direla diote GAL eta CESIDen iharduerak estali nahi dituzten demokratek, euskara eta euskaldunen aldeko ezer toleratzen ez duten toleranteek. Chernovilgoa ikusi aurretik gelditu zuen Euskal Herriak Lemoizgo zentrala, baina arrisku nuklearra ez dugu alboratu euskaldunok; hor dago Garoña Euskal Herritik oso gertu; Europan hainbat zentral dira martxan eta ez dakite hondakin nuklearrekin zer egin. Irlandan indar haundiz loratu den udaberriko distira apurren bat ekarriko ote du Euskal Herrira ipar haize hotzak. Blair, Irlandako arazoari buelta eman dion lehen ministro britainiarra, Stormonteko bilera garrantzitsua bukatu eta Israel-Palestinarren arteko bake prozesua indarberritzera joan aurretik, Aznarrekin izan zen Doñanan. Ea didaktikoa izan den bisita.

Euskal Herriko eta Irlandako egoera desberdina dela aipatu dute behin eta berriro España aldeko politikariek, hangoa hemen ez dutelako nahi seguraski. Ezberdina da noski, Sinn Fein negoziatzen ari zen bitartean, HB kartzelan edota espiatua zelako; Irlandan zazpi urtetik zazpi urtera horretarako sentsibilitaterik balego autodeterminazio erreferenduma egin daitekeen bitartean, hemen alternatiba demokratikoa zuloan sartu dutelako; bake prozesuaren arabera, han presoak bi urte barru kalean izango diren bitartean, hemen ezin Euskal Herrira ekarri... Milaka pertsonek egindako eskaera honek apenas du oihartzunik ETBn, juxtu Madril eta Marbella aldeko jet-ek egun-ero tokia duten ETB horretan. Ah, eta duela 30 urte, apirilaren 26an, lagun bat ere jaio zen, zorionak eta urte askotarako, Aittor. B

asteko menua

# Legatz buztan betea labean



ANTXONI TXINTXURRETA
*Antxoni jatetxeko sukaldaria*

**OSAGAIAK**
**(4 lagunentzat)**

- Kilo eta erdiko legatz buztana
- Patata
- Limoia
- Esnea
- Olioa
- Gatza
- Berakatza
- Tipula
- Ganbak
- Susak
- Perrexila
- Ogi birrindua

**PRESTAKETA**

- Tartera batean laminak egindako patatak eta berakatza oliotan pixkat egin.
- Legatz buztana zabaldu, hezurrak kendu eta betegarriekin bete ondoren, josi eta pataten gainean jarri.
- Esnearekin igurtzi eta ogi birrindua bota.
- Zartagin batean berakatza frijitu eta limoi zukua bota. Nahasketa guztia legatzari gainetik bota.
- Labean ordu erdi inguru eduki eta noizean behin bere zukua gainetik botatzen joan, sikatu ez dadin.
- Mahaira ateratzeko orduan, letxuga, tomate eta abarrekin apaindu daiteke.

adituen esanetan

# Alergiak

VICTOR IRIGOIEN, *medikua*

Alergia gehienek izaera heredagarria daukate. Udaberriaren etorrerarekin, "polinosis" deituriko alergien kasuak gehitu egiten dira, udaberrian polena gehitzen delako. Haizearen eraginez, polena leku batetik bestera dabil eta alergia mota hau sufritzen dutenentzat ez da batere gomendagarria arbolak edota lorategiengandik gertu egotea. Haize handiko egunetan ondo itxitako lekuetan egotea eta, ahal bada, kostara alde egitea gomendatzen da.

Hautsetan diren akaroekiko alergia dutenak ere asko dira. Alergia mota hau urte osoan ematen bada ere, tenperatura altuko egunetan (25-30 ºC) eta hezetasuna handia denean (%70-80tik gorakoa) arriskua handiagoa da. Euskal Herrian bi baldintza horiek ematea oso ohizkoa da udaberritik aurrera eta beraz kontu handiz ibili beharra dago. Kasu honetan, kostaldeak ez digu batere mesederik egingo eta onena mendira joatea izango da, 1.500 m.tik gorako lekuetan akaroak egotea zaila baita. Etxean ere hezetasuna saihestu behar da, ahal dela moketak eta alfonbrak ere bai. Logelan koltxoi sintetikoak (plastikozko zorroarekin hobe) erabiltzea onuragarria izango litzateke. B

bergarako gordailutik

# EMAN ZEN BESARKADA

**Imanol Sorondo**

Zumalakarregiren gudariak Deskargan irabazle atera ondoren, karlisten kuartel nagusia Bergaran kokatu zen. Karlos Maria Isidro bera ere, erregetarako asmoarekin zebilena, gure herrira etorri zen.

Karlista gudariak, urte batzuetan borrokatu ondoren, nekatuta aurkitzen ziren eta amaitzeko gogoarekin; era berean, eta ez gutxiago, Foruak (Eusko-legeak) ere nahi zituzten.

Egoera horretan eta azken egunetan, Bergara gudariz josita zegoen: Ozaetako eta Azkarruntzeko zubi bitartean hiru batailoi eta erdi gipuzkoar zeuden eta lau Gaztela herrikoak; zortzi baitailoi bizkaitar, berriz, Fraiskozurin gelditu ziren eta, gero, lehen esandako gipuzkoar bataloiak eta dibisio osoa ere toki horretan elkartu ziren.

Lehenxeago, Torre'tar Simon jauna egona zen Espartero eta Maroto jeneralekin eta, Eusko-legeak errespetatzen bazituzten, prest zeudela pakeak egitera adierazi zien. Esparterok, orduan, Fraiskozurin zeudenei hitzaldi bat luzatu zien, eta euskal gudariak itxaroten zituzten Foruen aldeko hitzak eta deiadarrak esan eta oihukatu ere bai. Geroago, jeneral hau Azkarruntzera joan zen han gelditutako Gaztela herriko gudariei beste hitzaldi bat ematera, baina hemen ez zuen Foru konturik aitatu.

Ondoren, bizkaitarrak Elorrio aldera abiatu ziren eta gipuzkoarrak Oñatira; hemen prestatu omen zen pakearen idatzia bi jeneralak Irizarren etxean izenpetu zuten 1839.eko abuztuaren 31n; bertan ez zen esaten Foruak errespetatuko zirenik, Esparterok errespeta zitezen ahaleginak egingo zituela bere alde, baizik. Lehendik, eztabaida eta zalantzak izan ziren; ondorengoak denok dakizkigu. Foruak (Eusko-legeak) amildegian sartu ziren. B




# Autopistaren kontra

**Eibar-Gasteiz autopistaren** kontra protesta egiteko Eguzki talde ekologistak antolatutako mendi ibilaldian 60 bat lagunek hartu zuten parte Aste Santuan. 60 ibiltariak, Sagarrerreka, Basalgo, San Martzial eta Angiozarko bailaratik zehar aritu ziren bizikletan Eguen Santuan. San Martizialen **Maite Aristegi** EHNE sindikatuko Idazkari Orokorrarekin batera tertuliatxo bat egin zuten eta, ondoren, 50 pago landatu zituzten, autopista egiteko San Martzial tunela eraikiko den lursailetan. Eguakitz eta zapatuan Leintz bailararantz abiatu ziren.

# Ikasleak txotxongiloekin



**Helduentzako Txotxongilo Mostra**ren barruan, **Mikel Diez** eta **Estefania Erro**ren oroimenezko txotxongilo erakusketa zabalik dago Kultur Etxean. Aste honetan antolatutako bisita gidatuetan 600 bat ikasle izan dira txotxongiloen ezkutuko sekretuak ezagutzen. Ikusleek txotxongiloak egiteko prozedurak, manipulazioan erabiltzen diren teknika ezberdinak edota Estefaniak eta Mikelek parte hartzen zuten **Kilimiliklik** taldeak egindako lanak ezagutzeko aukera izan dute, tartean ETB 1-eko "Txokolatex" saioko politiko ezagunak ikusgai direlarik. Erakusketa amaitu bitartean, maiatzaren 3ra arte, herritarrek bisita gidatua egiteko aukera izango dute, astebarruan 18:00etatik 21:00etara eta zapatu eta domeketan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.



# Kitarra ikasten

**Jardun**ek antolatutako kitarra ikastaroan 41 gaztek hartu dute parte. Ikastaroa 20 ordukoa izan da eta ikasleek, **Olaia Ramos** eta **Domentx Ucin** irakasleen eskutik, musikarako zaletasun handia azaldu dute. Bi maila izan dira, hasierakoa eta sakontze maila eta ikastaroa apirilaren 4an bukatu zenez, hemendik aurrera etxean edo lagunartean praktikatu beharko dute... Eutsi afizioari!!

# Bonba Taldieren aurkezpen afaria

**Aitor Lopez Rekarte "Bonba"**, Realeko jokalari arrasatearraren jarraitzaileek afaria egin zuten astelehenean Jam aretoan. Arratsaldean **Bonba Taldie** peñaren aurkezpen ekitaldia izan zen Arrasateko Herriko plazan eta jarraian 130 lagun inguruk afaria izan zuten Jamen. "Bonba"rekin batera, besteak beste, **De Pedro, Imaz, Aldeondo, Gracia eta Sarriegi** Relako jokalariak, Eibarren ari den **Arenaza** atxabaltarra eta Realeko bigarren taldeko hainbat jokalari izan ziren Bergaran. Bonba Taldiek orain 10 urte Atotxan istripu larria jaso zuen **Mikel Otxoa** arrasatearrari omenaldia eskeini zion. Giro ona izan zen nagusi eta espero dezagun Bonba Taldiek Reala gogor animatzen jarraituko duela, liga amaieran taldeak horren beharra izango du eta.



# Bergarako
# OSASUN GIDA

■ **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behea. 943 76 70 67, mobila: 907 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 4… mobila: 908 77 17 32 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako anima…** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 • **NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika).** Koldo Eleizalde 28. 943 76 27 97, mobila: 908 87 68 47 ■ **ANALISI KLINIKO… LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZA…** Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA.** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5, behea. 943 76 56 88 • **GIPUZKOA… ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M.** S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **IRIZAR Juan Mari.** Boni Lask… 4, behea. 943 76 56 57 ■ **DERMATOLOGOA: GARCIANDIA Cristina.** Ramon M. Lili 2. 943 76 59 39 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN** Francisc… Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren.** (Reeducacion Postural Global) Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTO…** Ramon M. Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 15 74 • **AZPEITIA Irune.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 2… **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13 • **PAYROS Aitziber.** Bidekurutzeta 46, be… 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA** B… Laskurain 2, behea. 943 76 20 50 ■ **OTORRINOLARINGOLOGIA: IGARTUA Julian.** Barrenkalea 35, 1-ezkerra. 943 76 70 91 ■ **PEDAGOGOAK: IZETA Maribi.** (Gab… psikopedagogikoa: logopedia, psikomotrizitatea) Simon Arrieta 3, 2-E. 943 76 26 42 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBE Edurne.** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU** Arantz… Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ezkerra. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK: FERNANDEZ J.R.** Ramon M. Lili 2. 943 76 59 39 • **PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76 ■ **REUMATOLOGIA: MORAGUES Carmen.** Ramon M. Lili 2. 943 76 59 39

# kontuola...

**KONTUOLA, Idolaz elkartea, ANTZUOLA. Kazetaria**: Marijo Deogracias **Erredakzio kontseilua**: Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak**: Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 76 65 08, Herri ikastetxea.

*Antzuolako hamabostekaria, 15 zenbakia. 1998ko apirilaren 24a.*

# Aerobica estresaren aurka

## Apirilean hasi ziren aerobic saioak Maristetako lokalean

**Beroketa ariketekin hasi eta eta musikari jarraituz aerobica egiten dute hogeita hamar bat lagunek astean hiru aldiz. Maristetan elkartzen dira astelehen, eguazten eta eguenetan ordubetez. Estresaren aurka oso ona omen da honelako ariketak egitea.**



*Adina ez da oztopoa aerobica praktikatzeko.*

Orain dela ia hilabete hasi ziren Antzuolako zenbait emakume Marisabel Hurtadoren klaseetan. Bergarar honek urteak daramatza honelako klaseak ematen eta berak dioenez, "zailena mugimenduak koordinatzen ikastea izaten da, baina berehala hartzen da erritmoa. Hala ere, lehen mailako ariketak baino ez ditugu landuko; oso jende ezberdina dago klasean eta guztiek ez dute erraztasun berdina mugimenduak egiteko eta koordinatzeko". Marisabelek Bergaran ere ematen ditu aerobic klaseak bere gimnasioan. Hala ere, Antzuolan bere alaba, Marisabel Otaño, arituko da klaseak zuzentzen. Berak adierazi digunez, "jende gehiago etortzen baldin bada, bi talde osatuko ditugu klaseak probetxugarriagoak izan daitezen".

**Herritarren ekimena**

Ez da lehenengo aldia gimnasiako klaseak antolatzen direna. Lehen ere Gotzon Del Teso aritu zen astean hirutan emakume talde bat zuzentzen. Emakume horietxek izan dira aerobic klaseak antolatzen aritu direnak. "Gotzoni esan genion berriz klaseak emateko baina berak ezin zuen, eta bi hilabetean geu bakarrik aritu gara; azkenean udaletxera joan eta eskaera egin genuen" dio aerobic zaleetako batek. Udalak lokala eta 12.500 PTAko dirulaguntza eskaini die hilero irakasleari ordaintzeko. Horrez gain, Udalak lokalak eragiten dituen gastuak hartu ditu bere gain; hala ere, lokala txukuntzea eta garbitzea taldearen esku utzi ditu.

Momentuz emakumeak baino ez dira animatu aerobica praktikatzera. Marisabelek adierazi digunez, ordea, "Bergaran aritzen dira gizonezkoak eta espero dugu hemen ere animatzea". Emakume talde honek ateak zabalik dituela adierazi digu.

Dagoeneko 32 lagun ari dira klasean eta beraiek diotenez "maiatz aldera jende gehiago etorriko da; gainera, herrian bertan izanik jendea errazago animatzen da parte hartzera".

*Jende gehiago etortzen bada, bi talde osatuko dira klaseak probetxugarriagoak izan daitezen*

## Gazinema

*Peter Pan* filmea eskainiko dute Gazinemakoek datorren domekan, apirilaren 26an, 16:30etan. Maiatzaren batean, jai eguna izateagatik, ez da saiorik egongo. Maiatzaren 8an, eguakitza, izango da Gazinemaren aurtengo azken saioa. 22:00etan *Full Monty* filmea eskainiko dute. Orain aurtengo saioen balorazioa egitea gelditzen zaie.

## Kukumarro lehiaketa

Iazko Kukumarro lehiaketaren arrakasta ikusirik, aurten ere antolatu dute kukumarro onenaren sariketa. Izena emateko azken eguna maiatzaren 14a izango da. Parte hartzaileek nahi duten kukumarroa aurkeztu ahal izango dute. Sari banaketa eta erakusketa San Isidro eguneko ospakizunekin batera egingo da, maiatzaren 16an, zapatua.

## Bertso paper lehiaketa

Idolazek aurten ere bertso paper lehiaketa antolatu du. Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 14a izango da eta udaletxean edota liburutegian entregatu daitezke lanak. Lau mailatan banatu dira gaiak. 1987an edo harrezkero jaiotakoek *Paga guztia ez dut gastatzen* gaia izango dute. 1986-83 bitartekoek *Musika talde hori gustoko dut* eta 1982-80koek *Laister etxetik kanpora noa bizitzera.* 1980a baino lehen jaiotakoak, gai librean arituko dira.

## Insersoko bidaiak

Herri txikietako edadetuei zuzendutako bidaiak antolatu ditu Insersok aurten. Andaluziara, Murtziara, Balearretara, Kataluniara edo Valentziara joateko bidaiak urritik 1999ko apirilera bitartean izango dira. Izena emateko azken eguna apirilaren 30a, udaletxeko Ongizate Zerbitzuan.

# Rokodromoa Maristetan



*Dagoeneko hasi dira Maristetako horman eskalatzen*

**Eskaladak** duen arrakasta ikusirik, Arrola Mendizale Taldeko gazteek rokodromoa egitea eskatu zuten. Bi hilabetez gela konpontzen eta eskalatzeko panelak eraikitzen aritu den Zigor Perezek adierazi digunez "beste herri batzuetan badaude honelako lekuak. Ez da zaila hau muntatzea eta diru askorik ere ez da behar". Zigorrek azaldu digunez "15 metro karratuko bi panel daude, bata 40 gradukoa eta bestea 25ekoa. Gutxi gora behera 250 presarekin".

Dagoeneko 15 lagunek eman dute izena rokodromoa erabiltzeko eta euren artean erabakiko dute rokodromoaren funtzionamendua.

Rokodromoa Udalaren laguntzarekin ireki dute eta momentuz bi pareta horiekin arituko dira eskalatzaileak. Zigorrek esan digunez "jendea joaten bada din bada, ikastaroak antolatzeko asmoa daukagu jende gehiago prestatzeko".



## Zuhaitzak botatzen Kostarratzun

Joan den asteburuan zazpi zuhaitz, orain dela 18 urte Antzuolako Udalak sartu zituenak, aizkoraz eta motozerraz moztuak agertu ziren Kostarratzun.

HARIZKI

MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 78 71 80

igor eta Txomin

Pintura orokorrean.
Paper, tela, binilo, kortxozko... estaldurak
Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA ☎ 76 60 39
BERGARA ☎ 76 19 98

# Ahuntza pasiatzen

**Maskotak** oso pertsonalak izaten direla bagenekien baina kalean ahuntzarekin pasiatzen ikustea ez da eguneroko kontua. Orain dela bost bat hilabetetik Jokinek Bragita bere ahuntza pasiatzera ateratzen du. Gaua untxien txabolan pasatzen du ahuntzak eta egunez etxe osteko zelaian egoten da zuhaitzetako ostroak eta belarra jaten. Bizilagunen lorak ere jaten omen ditu Bragitak eta dagoeneko Jokinen izebaren lorontziko lora guztiak jan ditu. Baina Bragita oso azkarra dela dio Jokinek eta orain izebaren eskailera zaharrera igotzen irakatsi nahi dio. "Elorza, Zeziaga, Bragita eta laurok Donostiara joateko asmoa daukagu uda partean. Alde zaharrean ipiniko gara dirua eskatzen eta diru gutxi botatzen digunari *zeken* deitu eta bere dirua ez dugula nahi esango diogu".

Amilletatik ekarri zuen ahuntza. "Hamalau antxume zituzten eta guztiak hiltzea pena eman zidan; horregatik bat ekartzea erabaki nuen. Abuztuan Amilletako akerra botatzeko asmoa daukat ea antxumeak izaten dituen".

Adar bareko ahuntza da Bragita, Jokinek dionez "jendeagatik ekarri nuen; zeozertaz berba egin beharra edukitzen du jendeak...; hala ere, adar bareko ahuntza da, adar jotzeak horrenbestekoak izan ez daitezen".



*Jokin eta Bragita.*

## *Hiru Truku* kontzertuan

Datorren zapatuan, apirilak 25, Hiru Truku, hau da Ruper Ordorika, Joseba Tapia eta Bixente Martinez musikagileak izango dira kontzertuan zinetokian 22:30etatik aurrera.

## Hitzaldia Jubilatuetan

Artrosia eta artritisaren inguruan jardungo dute zenbait adituk, datorren eguaztenean, apirilak 29. Hitzaldia Jubilatuetan izango da, arratsaldeko 17:00etan.

## Herriko ekintzen erakusketa

Iazko kultur eta kirol ekintzen berri emateko argazki erakusketa antolatu dute. Apirilaren 24, 25 eta 26an egongo dira ikusgai udaletxeko areto nagusian 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 20:30etara.

## Uzárraga-Zumárraga

Udalak jaso du Foru Aldundiak Arizti parean jarritako bide-seinaleari buruz aurkeztutako kexaren erantzuna eta seinalea konponduko duela erantzun du.

GURE ARTIAN

# Zein iritzi duzu Maiatzaren Lehena ospatzeari buruz?



**Jose Mari Segurola**

Gaizki pentsatzen jat langileen egunean lana egitea baina lau errelebotan lan egiten dogu eta egun horretan ere lan egin bihar dot; egutegia horrela dago antolatuta.



**Nikolas Garcia**

Langileen eguna delako, lana egiten ospatuko dugu. Asteburuetan ere lan egiten dugu eta baiezkoa eman eta gero, bete egin behar duzu, nahiz eta jai izan.



**Marijo Rodrigo**

Hogei urte dira langileen eguna ospatzen dudala eta behar dela uste dut. Egun horretan ez litzateke lanik egin behar, laister langileoi hori ere ez baitzaigu geratuko.

GOROSTi
Taberna
☎ 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

Ileapaindegia
Aureli Cot Velasco
Cot
Edertze aretoa

Gerta zaitez udarako eta hartu eguzkia lasai, zure azala Germaine de Capucciniren EGUZKITARAKO LINEAK babestuko du.
Errekalde 2, ANTZUOLA. Tf. 78 71 37
GERMAINE DE CAPUCCINI

# Unai eta Iker Euskal Ligako txapeldunak

**Joan zen apirilaren 3an, Bergaran jokatutako partiduan 22 eta 13 irabazi zuten Iker Muruamendiaraz eta Unai Idiakezek. Oraingoan, Euskal Ligako txapeldunen titulua lortu dute. Hurrengo denboraldian, Euskal Ligako ohorezko mailan arituko dira.**



**Orain dela bi urte hasi zineten elkarrekin jokatzen baina, noiz hasi zineten pilotan?**

Gazte gaztetatik jokatzen dot pelotan –Unai– zazpi edo zortzi urtekin hasiko nitzan, orduan futbolian be egitten neban. Ni –Iker– hamar urtekin hasi nitzan pelotan, baiña pelotan bakarrik. Bergarako eskoliakin hasi nitzan eta harekin segitzen dot.

**Zaila al da pilotan zerbait lortzea?**

Bai, ezta erreza –Iker– lana egin bihar da eta oin onentsuenak gora pasatzen dabitz eta igual hemendik aurrera geu bakarrik geldittuko gara. Norgehiagoka haundixa dao baiña aukera gehixao be badago profesionaletara pasatzeko; hala ta be, ona zala erakutsi bihar da eta gaiñera entxuferen bat baldin badaukazu ba, bueno... Guri hor gora heltzia, profesionaletara heltzia gustatuko jakun.

**Binakako partiduak jokatzen dituzuela eta nor nahiko zenukete bikote modura?**

Ezkio bera -dio Ikerrek-, aspaldittik ezagutzen dogu alkar eta ondo konpontzen gara. Lehen Tolosa gustatzen jaten... Oin Etxaniz bat edo, beti alkarrekin gabitz eta.

Neri Galartza igual –Unai– baiña eztot pentsau sekula, momentuz Ikerrekin.

**Partidurik dibertigarriena?**

Salamancan Errasti anaien kontra jokatu giñuana udako partidu baten. Partidu horrek pixkat "katxondeuan" hartzen dittuzu, berdin da irabazi edo galdu. Partidu ona jokatzera jun bihar zara eta harek serixo-serixo hartu zeben eta eron aitta han ibilli zan guri esaten zela etara bihar giñuan eta holakuak.

**Gustoko kantxarik ba al duzue?**

Etxekua, gehixen bertan ibiltzen galako. Batetik bestera diferentzia igartzen da, Antzuolakua adibidez, latzagua da. Gu Bergaran hobeto ibiltzen gara, haura gehixao erabiltzen danez, hobeto dago.

**Nola zaintzen dituzue eskuak?**

Ze, neskatan egitteko? –Ikerrek–, ez eskua egin egin bihar da, gogortu.

Lehen berbena tortillia ipintzen zan eskuan; arrautzian zuringuakin egindako tortillia izeten zan, miña euki ezkero gabian eskutan ipintzen giñuan. Oin masajistiana juten gara –Unai–.

**Datorren urtean Euskal Ligako Ohorezko Txapelketan jokatuko duzue.**

Zortzi pareja egongo gara, lau gipuzkoar, naparrak eta bizkaittarrak eta urtarrilletik aurrera hasiko gara jokatzen. Kategorixa gehixago dago liga honetan, onenak dare eta. Beste parejak ezagutzen dittugu baiña ikusiko dogu zer egitten dogun.



*Unai eta Iker Elgetan ari dira lau eta erdiko txapelketan.*

"Ezta erraza baina... hor gora heltzia, profesionaletara heltzia gustauko jakun"

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA


Juan Cruz

Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Argazkiak
Bitxitegia
Marrokineria
Erlojuak
Herriko plaza 4, ANTZUOLA
Tf. 78 70 66


Maria Piedad Iturbe
ILEAPAINDEGI MISTOA
SOLARIUMA
Antigua auzoa 8, behea. ANTZUOLA
Tf. 76 61 86 / 78 71 86 (etxekoa)

# Txotxongiloek herria hartuko dute asteburuan!

**Atzo, eguena, eman zitzaion hasiera Helduentzako Txotxongiloen Nazioarteko IV. Mostrari. Txotxongiloen mundua helduei hurbildu nahirik, hamaika taldek hartuko dute parte aurtengo edizioan eta beraz txotxongiloak astebukaerako protagonista bilakatuko dira, herriko bazter guztietara iritsiz. Kaleko emanaldiez gain, ikuskizunak Novedades aretoan, Pol-Polen eta Kartzelan izango dira.**

Taun-Taun taldeak, iazko parentesiaren ondoren, ilusio handiz ekin dio Mostraren edizio berri bat antolatzeari. Aurreneko hiru edizioek harrera ezinhobea jaso dute ikusleen aldetik eta, aurten ere, bereziki helduei zuzendutako lanak dituzten taldeak gonbidatu dituzte Mostrara. Nazioarteko jaialdi honetan Estatuko taldeak nagusi baldin badira ere, El Chonchon arjentinarrak eta Green Ginger galestarrak Bergaran izango dira astebukaeran euren espektakuloekin. Taun-Tauneko ordezkarien arabera, nekezena hautaketa prozesua izan da. Itxaso Azkaratek eta Karlos Odriozolak adierazi diguten moduan, "bideo eta dossier pilo bat aztertu behar izan ditugu azken hilabeteotan eta hautaketa egitea ez da batere erreza izan. Joan zen urtean jaialdirik egon ez zenez, lana zertxobait aurreratuta geneukan baina zaila izan da jasotako eskeintzen artean interesgarrienak aukeratzea. Kobratu gabe etortzeko prest ziren taldeak ere egon dira, azken batean mundu honetan gabiltzanon topagunea bilakatu delako jaialdia baina ezin izan dugu nahi beste talde gonbidatu".

Bergarako jaialdiak bere izen propioa dauka jadanik honelako jaialdien zirkuituan. Hain zuzen ere, Estatuan egiten den helduei zuzendutako txotxongilo jaialdi bakarra Bergarakoa da. Alde horretatik oso pozik azaltzen dira Taun-Tauneko kideak: "1991n lehen edizioa antolatu genuenean helburu batzuk geneuzkan eta helburu horiek



Txotxongiloen Mostraren laugarren edizioan estilo ezberdinetako ikuskizunak programatu dira.

bete egin direla esan genezake, horrelako jaialdi bat martxan jartzea eta honelako ikuskizunekin gozatzen duen ikuslego bat erakartzea alegia". Urtetik urtera ikusle kopurua handituz joan da eta hori dela eta aurtengo edizioan Zabalotegiko aretoa baztertu eta hainbat emanaldi Novedades aretoan izango dira. Lokal egokiak lortzea izan da antolatzaileei nahiko buruhauste eman dien beste gaietako bat. Emanaldiak herriko taberna gehiagotan izatea nahi zuten antolatzaileek baina lokalek ez zituzten beharrezko neurriak betetzen eta Pol-Pol izango da txotxongiloak jasoko dituen taberna bakarra. Era berean, Kartzelako emanaldietan, kafe-teatroko giroa sortu nahirik, taberna bat egokituko da eta musikak ere tartea izango du jaialdian. Horrela, "El mejor amigo del hambre" bilbotarrek euren kantuak eskeiniko dituzte zapatu gauerdiko txotxongilo emanaldiaren ostean eta domekan, berriz, jaialdiari amaiera emateko herriko hainbat musikari Kartzelako eskenatokian izango dira.

**Kalitatezko lanak**

Nobedade modura, aurtengo jaialdia inguruko herrietara ere zabalduko da. Hainbat talde ekartzea ez da batere erreza izaten emanaldi kopuru minimo bat ziurtatzen ez bazaie eta beraz, produktore lanetan ere jardun behar izan dute Taun-Taunekoek. Elorrion, Arrasaten, Oñatin, Zornotzan eta Agurainen ere txotxongiloekin gozatzeko aukera izango dute. Antolatzaileek ez dute programatutako emanaldietatik bat ere nabarmendu nahi eta lortutako partaidetzarekin harro daude. Hala ere, eta ekartzeko egin behar izan dituzten ahaleginak kontutan hartuta, badirudi Greeen Ginger galestarrak eta El Espejo Negro andaluziarrak momentuko talde izarrak ditugula: "Dena den, beti izan ditugu kalitatezko ikuskizunak eta estilo ezberdinetakoak ekartzeko irizpidea eta aurten ere horrela izan da. Barieda-

**Taun-Tauneko kideen ustez lehen edizioan planteatu ziren helburuak bete dira, jaialdia martxan jarri eta honelako ikuskziunekin gozatzen duen ikuslegoa lortzea alegia**

## Programazio zabala astebukaeran

### EGUAKITZA

*PEPE OTAL (BARTZELONA)*
**"Rigoletto"**, 20:00etan Novedadesen.
Sarrera: 1.000 pezeta. 600 ikasle eta langabetuentzat.
Jordi Bertranen maisua izandako Pepe Otalek Verdiren "Rigoletto" operaren bertsioa landu du, teatrino baten laguntzaz eta eskularruaren teknikarekin. Amodio kontuak eta jauregietako ezkutuko kontuak izango dira aztergai, pikareska nagusitzen delarik. Mantuako Dukeak eta Rigoletto bere bufoietako batek sekulako nahastea sortuko dute eta ahal duten moduan gaindituko dituzte suertatzen zaizkien zailtasunak...

*ARBOLÉ (ZARAGOZA).*
**"Yermo"**, Pol-Polen, 22:30etan. Sarrera: Doan.
Alberto Calvoren komik-ean oinarritutako pieza honetan umorea da nagusi. "Cachiporra"ren istorioen tradizioa jarraituz, komikietako pertsonaiak txotxongiloak bilakatu dira. Alberto Calvok berak diseinatutako dekoratuak erabiliz, "Supermaño" pertsonaiaren gorabeherak azaltzen dira. Lan honetan ere eskularruaren teknika erabiltzen da.

*LA FANFARRA (BARTZELONA).*
**"Constantina, escúchame con los ojos"**, Kartzelan, 24:00etan.
Sarrera: 600 pezeta. 400 ikasle eta langabetuentzat.
Ana Maria Moix idazlearen lan honetan emakumearen egoerari buruzko ikuspegia ematen zaigu. Dena galdera batekin hasten da: "Zer nahi dute emakumeek?". Emakumeek bizi duten egoera ezberdinen bitartez, Constantina eta bere lagunak galdera horri erantzuten saiatuko dira, emakumearen askatasuna edota giza arazo existentzialen aurrean kontzientzia piztu nahirik. Poesiaz beteriko lana.

### ZAPATUA

*EL CHONCHÓN (ARGENTINA).*
**"Los bufos de la matiné"**, 12:00etan Pol-Polen. Sarrera: Doan.
Talde arjentinar beteranoak zine mutuko komikoei omenaldia eskaini nahi izan die lan honetan. Samurtasuna eta injenuitatea txotxongiloen bitartez landu nahirik, Charles Chaplin, Buster Keaton, Laurel Hardy edota John Lennon musikaria ere dira protagonista nagusiak. Emanaldiak estruktura fijoa duen arren, aldaketak gertatu daitezke ikuslegoaren partehartzearen arabera.

*EL ESPEJO NEGRO (ANDALUZIA).*
**"El circo de las moscas"**
20:00etan Novedadesen.
Sarrera: 1.000 pezeta.
600 ikasle eta langabetuentzat.
Carmen Ledesma eta Angel Calvente malagarrek 1989an sortutako talde honek sari ugari lortu ditu munduan zehar. Orain proposatzen diguten zirko honetan ekilibrista gutxituak, intsektuak, genetika fenomenoak eta beste hainbat bitxikeria azalduko dira, teknika diferenteak erabiltzen dituztelarik. Bergaran 1993an izandako arrakastaren ondoren, aurten ere emanaldi izarretako bat eurena da.



de aldetik aurtengoa aurrekoa baino aberatsagoa da eta talde kopurua ere handitu egin da; duela 3 urte 7 izan ziren eta aurten 11. Eta talde guztiek dituzte berezko gauzak. Uste dugu programazio erakargarria osatu dugula eta ea jendeak erantzuten duen..." esan digute Taun-Taunekoek.

Antolaketa lanetan murgildurik, talde bergararrak ez du jaialdian parte hartuko. Hori bai, jaialdiarekin amaitu ondoren, haurrei zuzendutako lan bat prestatzeari ekingo diote. Atxagaren ipuin batean ("Txitoen istorioa") oinarritutako lana da eta ez dute aurreratu nahi estreinua noiz izango den. Bien bitartean maiatz-ekain aldera jira bat egingo dute Brasileko hainbat hiritan "Ubu" lanarekin. Baina Brasil urrun dago eta txotxongiloak gertuan ditugu astebukaera honetan... B


Aurtengo edizioan 11 taldek hartuko dute parte. Emanaldiak Novedadesen, Kartzelan eta Pol-Pol tabernan izango dira eta kaleko ikuskizunak ere ez dira faltako.

*EL TENDERETE (BILBO).*
**"Menudencias"**, 22:30etan Pol-Polen. Sarrera: Doan.
Bilbotarrak, aurreko Mostran, "Soberanos problemas" lanarekin izan ziren. Garai batean bide bazterretan izaten ziren ostatuetako giroa berreskuratu nahi izan dute oraingoan. Bertan abenturazaleak, lapurrak edota erromesak elkartuko dira. Kartzelatik ihes berria den "Txikilicuatro" bidelapurra bere taldea berrantolatu eta nonbait ezkutatuta dagoen altxorra topatzen ahaleginduko da.

*LA CÓNICA/LACÓNICA (BARTZELONA).*
**"Ombres d´objectes trobats"**, 24:00etan Kartzelan.
Sarrera: 600 pezeta. 400 ikasle eta langabetuentzat.
Itzalen teatroa deiturikoa lantzen dute Alba Zapater eta Merce Gost katalanek. Honako hau euren lehen lana dugu, duela bi urte estreinatutakoa. Musikaren laguntzaz, kontainerretan topatutako objetuak azaltzen dira eta beraz angulo eta dimentsio ezberdinak erabiliz objetu horien irakurketa berria proposatzen digute. Itzalek gauza asko dute esateko...

## DOMEKA

*GREEN GINGER (GALES).*
**"Prats"**, kalean 12:00etan.
Green Ginger galestarra momentuan munduko talderik onenetakoa da eta domekan kalean ikusteko aukera izango dugu. Prats (Positive Action Team) lan honekin kale istiluen aurkako brigadak dakarzkigute eta adi beraz domekan kalera irtetzean. Trafikoa zuzentzen, kalean dabilen jendea kontrolatzen edo tartak lehertzen izango dira antzerkilari umoretsu hauek.

*GREEN GINGER (GALES).*
**"Slaphead"**, Novedades, 20:00etan.
Sarrera: 1.000 pezeta. 600 ikasle eta langabetuentzat.
Charleville-Mezieres-eko jaialdian lortutako arrakastaren ondoren, momentuko txotxongiloen ikuskizun erakargarrienetako bat Bergaran ikusteko aukera. Jaiotzez burusaila izan den Didden Todd-ek haurtzaro problematikoa izan zuen eta hirira bueltatzean, izenez beteriko zerrenda eta guraiza beldurgarri batzuk dakartza eskuartean... Diseinu eta umore surrealistak jaialdiari amaiera ezinhobea emateko.

*TEATRO KAOS (GALIZIA).*
**"Amor y crimenes de Juan Pantera"**, Pol-Polen 22:30etan.
Eduardo Blanco-Amorrek idatzitako cachiporraren farsa honetan, Contemplacion Jimenezekin ezkontzeko prest diren kandidatoen gorabeherak azaltzen zaizkigu; Juan Pantera institibo eta zakarrarenak, Estoraque "El indiano" dirudunarenak, Pastorino inozoarenak edota "El sacristan" faltsuarenak. Pikareska tradizioko lana eta umore kritikoz egindako lana.

*EL CHONCHÓN (ARGENTINA).*
**"Los bufos de la matiné"**, Kartzelan 24:00etan.
Sarrera: 600 pezeta. 400 ikasle eta langabetuentzat.

- Jaialdi guztirako bonoak 3.600 eta 2.000 pezetan (ikasle eta langabetuentzat) salduko dira.
- Emanaldi guztiak ordubete ingurukoak dira.
- Kultur Etxean, bestalde, Estefania Erro eta Mikel Diezen oroimenezko txotxongilo erakusketa ikus daiteke egunotan.

# Labegaraietako futbito txapelketa

## partiduak

**KOPA TXAPELKETA. FINAL ZORTZIRENAK**

**ZAPATUAN KANPOAN**

**16:00:** Azpeitxi Jatetxea-Shaktale
Arb.: Antolaketa Batzordea
**17:00:** Jakina Patxaran Team-Bayer
Arb.: Antolaketa Batzordea
**18:00:** Uve Bikoitza-A Ze Flaxa Etxagi
Arb.: Antolaketa Batzordea
**19:00:** Autoberezi-Amozkibar
Arb.: A Ze Flaxa Etxagi

**DOMEKAN KANPOAN**

**11:30:** Ezinleike-Etengabe
Arb.: MRW
**12:30:** Manitou-MRW
Arb.: Etengabe
**16:00:** Artusamak-Guadalest
Arb.: Antolaketa Batzordea

## argi!

**Manitou aurrera bai kopan eta baita Play Offean ere**
Joan zen astean, Azpetxi taldeak Play Offean Manitou taldea kanporatu zuela esan genuen baina ez da horrela izan. Azpeitxi Jatetxearen aurkako partidua penaltietan irabazi egin zuen Manitouk. Kopan ere aurrera egin du, Pagomendi taldeari 5-1 irabazi ondoren.

**Kopako final laurdenak maiatzaren 1ean**
Datorren asteburuan, maiatzaren 1ean, Kopako final laurdenak jokatuko dira eta zapatu edo domekan final erdiak. Asteburu honetan jokatuko diren final zortzirenetan aurrera egiten duten taldeek, noiz jokatu nahi duten abisatu beharko dute datorren martitzeneko bileran.

## jokoz kanpo



**Patxi Arriola**
USOA

**G.** Zer moduz amaitu duzue liga?
**E.** Laugarren mailako bigarren postuan sailkatu gara.
**G.** Kopan nola gelditzea espero duzue?
**E.** Gaizki. Jende gutxi ari gara jokatzen
**G.** Zer nolako maila dago?
**E.** Gure mailan, ondo ari diren taldeak daude.
**G.** Arbitroen lana zer iruditzen zaizu?
**E.** Ez dute gaizki arbritatzen.
**G.** Zeren falta somatu duzu txapelketan?
**E.** Ezerena ere ez.
**G.** Zer hobetuko zenuke zure taldean?
**E.** Jokatzeko jende gehiago behar dugu.
**G.** Txapelketako talderik onena?
**E.** A Ze Flaxa.
**G.** Eta jokalaririk onena?
**E.** Anaia, Juan Luis Arriola.
**G.** Zure taldeko gauzarik onena?
**E.** Dagoen giroa.
**G.** Zein postutan jokatzen duzu?
**E.** Atzean.
**G.** Golik sartu al duzu?
**E.** Bi.
**G.** Gehiago sartzeko asmotan?
**E.** Ez dut uste.
**G.** Nork irabaziko du mundiala?
**E.** Brasilek.
**G.** Ligako jokalaririk onena?
**E.** Guardiola.
**G.** Erreala Uefan sailkatuko da?
**E.** Bai, noski.

## gora eta behera

**Guadalest**
Lehen mailako Jauja OH Zerezos taldeari, 9-4 irabazi zion kopan. Bestalde, Bayer taldeak ere, lehen mailako Errotagain taldea kopatik kanporatu zuen joan zen astean eta, Shaktalek, gauza bera egin zuen Bildurbarek Opel/Lam taldearekin, 6-4 irabazi ondoren.

**Lehen mailako lau talde**
Kopa txapelketan lau mailetako talde guztiek jokatzen dute euren artean eta ezustekoak izaten dira. Orain arte jokatu diren bi kanporaketetan, lehen mailako lau talde txapelketatik kanpo geratu dira: Ortzi, Jauja OH Zerezos, Bildurbarek Opel/Lam eta Errotagain taldeak ez dute demostratu lehen mailako taldeak direla, bigarren mailako taldeen kontra galdu egin baitute.

## emaitzak

**KOPA TXAPELKETA**

| | |
|---|---|
| **Uve Bikoitza**-Matxakategi | 7-4 |
| **Shaktale**-Bildurbarek Opel/Lam | 6-4 |
| **A Ze Flaxa Etxagi**-Etxagi | 10-4 |
| FAC-**MRW** | 2-2 |
| **Artusamak**-Bar Canalejas | 6-6 |
| Agiñaspi-**Autoberezi** | 2-3 |
| **Amozkibar**-Usoa | 3-3 |
| Errotagain-**Bayer** | 1-2 |
| Agirrebeña-**Mongatxurrak** | 1-7 |
| Pagomendi-**Manitou** | 1-5 |
| **Txipiron**-Bar Ganbara | 5-4 |
| **Azpeitxi Jatetxea**-Indargorri | 6-3 |
| **Jakina Patxaran Team**-SLO | 2-2 |
| Jauja OH Zerezos-**Guadalest** | 4-9 |
| **Ezinleike**-Ufala | 7-1 |
| La Juve-**Etengabe** | 3-4 |

Bolintxo
OKINDEGIA
domeketan zabalik
eta zapatu
arratsaldeetan 17:00etatik
20:30etara
Zurradero 2 behea Telefonoa 76 01 26


KORTA-ZAR
Txokolategia
Pintxo eta ogibitartekoen espezialitatea
OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK
Barrenkalea 16 ☎ 76 20 62

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

# ESKOLA KIROLA

### IKUSI ETA IKASI

**FUTBOLA:**

**Epailearen sakea**

Epaileak ohizkoa ez den joko-etenaldi baten ondoren egiten duena da; ekipo bakoitzeko jokalari bat hartu, eta baloia bien artean lurrera erortzen uzten da.




### TXINPARTAK

**Atletismoa, boleibola, errugbia eta patinaia martxan**

Aste bukaera honetan, benjamin mailakoek, pilota txapelketa amaituko dute eta gelditzen diren hiru asteetan, kirol ezberdinetan arituko dira. Alebinek ere, badminton eta piraguismo denboraldia amaituko dute eta benjaminekin batera, atletismo, boleibol, errugbi eta patinaian jardungo dira.

**Futbitoko final erdiak**

Zapatuan, futbitoko final erdiak izango dira Labegaraietan. Los chicos de Altuna momentuz lehen postuan sailkatuta daude eta laugarren postuan dagoen Aranzadi 203 taldearen aurka arituko da. Bestalde, M. Lagundia eta Aranzadi 202k jokatu beharko dute elkarren kontra. Zorte on guztioi!



## Aranzadi 10, alebinak

Aranzadi 10 alebin mailako taldea Oier Tola, Mikel Gallastegi, Gorka Iñurrieta, Mikel Salegi, Ibai Igarza, Iñaki Elkorobarrutia, Aimar Errasti, Unai Agirre, Eloy Crespo, Iker Orgaz eta Xabier Garitaonaindiak osatzen dute.

Saskibaloia da gehien gustatzen zaien kirola. Beste kirolak ere asko gustatzen zaizkie eta horien artean futbola nabarmentzen dute. Barcelona eta Realzaleak dira eta San Martinen kontra eskubaloiko finala jokatzeko sailkatu dira. Taldeko izarra Unai Agirre ei da, sartzen dituen puntuak direla eta.



## San Martin, alebinak

San Martin Agirre alebin mailako nesken taldea Lliria Remesal, Patricia Murillo, Leire Alonso, Lidia Peña, Rakel Blanco, Susana Marina, Alba Gimenez eta Azahara Gimenezek osatzen dute.

Eskubaloia eta futbola dira gehien gustatzen zaizkien kirolak. Saskibaloi txapelketan zorte haundirik ez dute izan, lesionatu asko izan baitituzte. Atletismoa da gutxien gustatzen zaien kirola, asko nekatzen direla esan digute eta. Astean zehar bi egunetan entrenatzen dira eta, egia esan, ez daude oso gustora entrenatzaileak agintzen dienarekin.

## KARTELDEGIA

**FUTBOLA**

**Infantilak / Mutilak**

**10:00:** Aranzadi-San Biator.

Zapatuan, Ipintzan.

**Kadete / Mutilak**

**10:00:** Chicos Altuna-Aranzadi 203.

**10:00:** Aranzadi 202-M Lagundia.

Zapatua, Labegaraieta.

**Infantilak / Neskak**

**09:00:** Ipintza DBH-Almen.

Zapatuan, Ipintzan.

**SASKIBALOIA**

*Gipuzkoako Txapelketa.*

Zapatuan, M Lagundia.

**Alebinak**

**11:00:** Aranzadi 10-Pilar All Star.

**Infantilak**

**12:00:** Aranzadi-Ikas Otsoko.

**PIRAGUISMOA**

Zapatuan, Agorrosin igerilekuetan.

**Alebinak**

**09:30:** Aranzadi 14.

**10:30:** Aranzadi 7, Aranzadi 8.

**11:30:** M Lagundia A, M Lagundia B.

**12:30:** Aranzadi 11, Aranzadi 12.

**BADMINTON**

Zapatuan, Aranzadi ikastola.

**Alebinak**

**10:30:** 5. mailakoak.

**11:30:** 6. mailakoak.

**PILOTA**

**Benjaminak**

Zapatuan, Udal Pilotalekuan.

**09:45:** Aranzadi 4, M Lagundia A, San Martin.

**10:45:** Aranzadi 2, Aranzadi 1, Elgeta.

**11:30:** Aranzadi 5, Aranzadi 3.

**12:15:** Aranzadi 6, M Lagundia B.

## Futbola

BKEko futbol talde nagusia lasai asko ibili daiteke, baina hala eta guztiz, entrenadoreak esan zuenez, irabazten saiatuko dira. Bestalde, bigarren kadeteek orain arteko martxan jarraituz, igoera ziurtatuta dute. Donostiarren aurka partidu bikaina jokatu zuten eta bi talde igotzen direla kontutan izanda, Bergarakoek aukera handia dute. Lehen eta bigarren mailako jubenilak, hasierako postuetan sailkatuta daude eta hauek ere mailaz igotzeko txartel asko dituzte poltxikoan. Neskei buruz ezin dugu berdina esan.

Lehen mailako kadeteak berriz, kopa jokatzen ari dira. Lau partiduren faltan egon arren, ez dute kopa Bergarara ekartzeko aukerarik.

## Eskubaloia

Iraundi Bergara eskubaloi taldeak, Hernanin galdu ondoren, Loiola taldeko donostiarren aurka jokatu beharko du. Kopa irabazteko aukera galduta egon ez arren, gelditzen diren partidu guztiak irabazi beharko lituzkete eta hala eta guztiz, sailkapenean aurretik dabiltzan taldeek lortutako puntuen arabera egongo litzateke. Bestalde, jubenilak, ligako seigarren postuan sailkatu dira Arrateren aurkako partidua galdu ondoren.

Kadete neskak berriz, Euskadiko txapelduna izan den Aloñaren aurka irabazi zuten kopako lehen partidua. Azkenik, kadete mutilek ezin izan zuten Arrasateren aurka partidua jokatu, arbitroak izandako gaizkiulertze baten ondorioz.

## Saskibaloia

Bolsos Bergara BKEko saskibaloi taldeak luzapenean galdu zuen Errioxarren kontra. Bost partidu gelditzen dira liga amaitzeko eta ziurrenik, bederatzigarren postuan sailkatuko dira. Jubenilak, Gipuzkoako txapela lortzeko borrokan ari dira. Hirugarren postua ziurtatuta dago eta gelditzen diren lau partiduetatik hiru irabaziz ere, txapeldun geratzeko aukera dute.

Jubenil neskak ordea, azkenaurren gelditu dira. Azkenik, kadete mutilek, lau partidu faltan izan arren, mailaz igotzeko aukera guztiak galdu dituzte. Gelditzen diren partiduetan, sailkapenean aurrera egiten saiatuko dira. Bigarren edo hirugarren postua lortzen, hain zuzen.

## AITOR ZABALETA / Pilotoa

## "Cadizeko ibilbidea ez dut ezagutzen"

**Arrateko XXX. Igoeran txapela lortu ondoren, aste bukaera honetan, Ubriquen izango den Espainiako txapelketa jokatuko du.**

**G.** Espainiako lehen txanda irabazteko prest?

**E.** Ibilbide berria da. Inork ez du ezagutzen; beraz, lehenengo bidea ikasi beharko da. Gero ikusi behar. Euskal Herritik hamar lagun izango gara bertan.

**G.** Zer moduz Arraten?

**E.** Zapatuan zazpi segundutako aldea zegoen eta hori ez da normala izaten. Banekien Vilariñok hurrengo goizean gogor egin behar zuela. Zorionez, irabazi egin nuen.

**G.** Zer behar da gidari ona izateko?

**E.** Lasterketak atsegin izan, denborak gainditzen joan eta kotxe ona izan behar da.

**G.** Beste modalitate baten parte hartzeko asmorik?

**E.** Ez. Zirkuituetan parte hartzea baino nahiago ditut mendi igoerak. Nere mailan, goian mantentzea izango da helburu nagusia, ez bait da erreza. Bestalde, Europan parte hartzea izugarri gustatuko litzaidake.

**G.** Beste kirolik?

**E.** Noizean behin, txirrinduan ibiltzen naiz baina oso gutxi.

**G.** Aurkari gogorrenak?

**E.** Vilariño, Martinez eta Txillida.

**G.** Gorlako Igoeran izango zara?

**E.** Bai. Ekainaren 7an izango da. Antolatzaile lanak ere egiten ari naiz. 1993an antolatu zen azkenengoz eta arazoak izan genituenez bost urte itxaron behar izan dugu. Aurten, Bergarako Udaletik laguntza handia izan dugu.

**G.** Multa asko jarri al dizkizute?

**E.** Ez. Bidean lasai ibiltzen naiz. Adrenalina, lasterketetarako uzten dut.




## KARTELDEGIA

**FUTBOLA**

**Bergara-Orioko**
Lehen mailako erregionala.
Domeka. 17:00. Agorrosin.

**Bergara-Elgoibar**
Lehen mailako jubenilak.
Zapatua. 17:15. Ipintza.

**Bergara-Urola**
Bigarren mailako jubenilak.
Zapatua. 15:30. Ipintza.

**Bergara-Elgoibar**
Lehen mailako kadeteak.
Domeka.10:00. Ipintza.

**Bergara-Koskas**
Bigarren mailako kadeteak.
Domeka. 11:30. Ipintza.

**Bergara-Urretxu/Zumarraga**
Neskak.
Zapatua. 11:00. Ipintza.

**ESKUBALOIA**

**Iraundi Bergara- Loiola**
Senior mutilak.
Zapatua. 17:30. Labegaraieta.

**Bergara- Arrate**
Jubenil mutilak.
Zapatua. 16:00. Labegaraieta.

**SASKIBALOIA**

**Bergara-Iraurgi**
Seniorrak.
Zapatua. 19:00. Labegaraieta.

**Bergara-Gros Loiola**
Jubenil neskak.
Zapatua. 17:30. M Lagundia.

**Bergara-Zarautz**
Jubenil mutilak.
Domeka. 11:00. M Lagundia.

**PILOTA**

**• Gipuzkoa-Bizkaia Federazio Txapelketa**
Eguakitza. 19:45. Pilotalekua.

**• Bergara Hiriko IV. Txapelketa**
Martitzena. 19:30. Pilotalekua.
_Promesak:_
Egimendia eta Arrieta-Leiza eta Zabala.
_Seniorrak:_
Muruamendiaraz eta Iñurrategi-Badiola eta Gastesi.

**NESKEN IV. FUTBITO TXAPELKETA**
Domekan M. Altuna Institutuan:

**Zutaz Pentsatzen-The Road**
11:00. *Arb.: Gu Geu.*

**Azkenak-Gu Geu**
12:00. *Arb.: Zutaz Pentsatzen.*

**Nifis-Blue Star**
12:00. *Arb.: The Road Island.*




Bergararrak pozik daude Arrasateko taldean eta giro bikaina dagoela diote.

# Bergarako neskak Mondran

## Bost bergarar Arrasateko futbol taldean

**Agurtzane Lete, Arantzazu Kortabarria, Giomar Fernandez, Maite Lazkano eta Olatz Mendiluze dira Arrasateko futbol taldean jokatzen ari diren neskak.**

Agurtzanek bi urte eta gainontzekoek urte bete inguru dabiltza Atxabalpeko zelaia zapaltzen. Arrasateko taldea, liga nazionalean ari da jokatzen. Hamahiru taldeetatik zazpigarren postuan sailkatu eta orain, Euskadiko koparen zai daude.

Estatuan, maila nazionean jokatzen duten talde asko daude, eta lau multzotan banatzen dira; Madril, Asturias, Bartzelona eta Euskal Herria. Euskadi mailan, Sondika eta Eibartarra dira hobekien ari diren taldeak. "Maila oso ona dago nesken artean jende askok horrela pentsatu ez arren. Gure mailan jokatzen ari zen neska bat esaterako, Japonetik deitu dute eta han Jardungo du jokatzen. Bestalde, estatu mailako taldeen berriak izaten ez ditugunez, ez ditugu ezagutzen eta zaila izaten da ondo zein dabilen jakitea. Komunikabideen errua dela uste dugu. Neskek egiten dugun futbolari ez zaio merezi duen garrantzia ematen. Egunkarietan esaterako, ez dugu lerro bakarra ere izaten"

### Ikusle gutxi partiduetan

Partiduak, jende gutxik jarraitzen dituela diote. "Jende askok, ez du egiten dugun jokoa estimatzen. Futbola bakarrik mutilentzako eginda dagoela uste dute eta kasualidadez partiduren bat ikustera heltzen direnean, harrituta gelditzen dira. Normalean, lagunak edota familiarteko norbait gerturatzen da zelaira, besterik ez".

### Nesken txapelketen faltan

Astean hiru aldiz joan behar izaten dira Arrasatera. Batzuk ikasten daude eta entrenamendua gaueko zortzietan izan arren, ez zaie gogorra egiten. "Futbola atsegin dugu eta entrenamenduetara gustora joaten gara. Azterketak dituenak, eguna ondo antolatzen badu ez du zertan arazorik izan behar". Nesken txapelketa gutxi daudela diote: "Gehiago egin beharko lirateke. Bergaran, esaterako, lehen aldiz egingo da". B

**"Nesken futbola gutxi estimatzen dela uste dugu eta hori komunikabideen errua da"**

## Bergara Hiria IV. Pilota Txapelketa

**Martitzenean**, hasi zen Bergara Hiria Pilota txapelketa eta maiatzaren bukaera arte iraungo du. Maila bakoitzean zortzi pilotari izango dira. Txapelketa, final laurdenak jokatuz hasiko da, gero final erdiak eta azkenik txapela lortzeko borrokatu beharko dute. Afizionatuen mailan, guztira hamasei pilotari daude. Horietako bat, Deba Arroko txapeldun ordea izan den Iker Muruamendiaraz. Final laurdenak apirilean hasi dira jokatzen. Final erdiak maiatzaren 12 eta 14an izango dira eta finala 22an. Sarrera dohain da. B

## Ipintzako Futbol Txapelketa martxan

**Ipintzako** futbol txapelketa antolatzen hasi dira dagoeneko. Aurten nesken txapelketa ere jokatuko da: 10 edo 12 izango dira taldeko eta zazpik jokatuko dute. Hamalau urtetik gorakoak izan behar dira; izen-ematea, 2.000 pezeta. Mutilen kasuan, talde bakoitzak, gutxienez, hamalau eta gehienez hogeitabat jokalari izango ditu. Izen-ematea 12.000 pezetakoa da eta epea maiatzaren 22an amaituko da. Talde bakoitzeko lau federatu onartuko dira eta batera hiruk jokatu ahal izango dute. B

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!**

**1. ETXEBIZITZAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

**3. LOKALAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

**4. LANA**
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**6. AUTOAK/ MOTOAK**
Saldu
Erosi
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
Saldu
Erosi
Bestelakoak

**8. DENETARIK**
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZAK

### Saldu

Pisu amueblatua salgai herri erdian. 76 06 64.

Pisua salgai Donostian. 76 31 79.

Barrenkalean apartamentua salgai. 76 56 41/76 04 69.

Pisu amueblatua salgai Martokon. 76 46 70.

### Errentan hartzeko

Lokala hartuko nuke alokairuan. 76 03 31.

### Errentan emateko

Pisua alokairuan Ikerleku 2an. 76 36 99.

Pisua alokairuan Alcoberren, Castellonen. 76 59 05.

Duplex bat alokairuan Zarautzen uztailean eta abuztuan. 83 56 36.

## 2. GARAJEAK

### Saldu

Garajea salgai Bolun. 76 47 99.

Garajea salgai Masterrekan. 78 36 65.

Garajea salgai Aranerrekan (2 plaza itxita). 76 06 96.

Garajea salgai Ibargarain. 76 57 93.

Garajea Torrekuan. 950.000 PTA. 76 19 72.

Garajea salgai Zurraderon. 76 02 89.

### Errentan emateko

Garaje bikoitza alokairuan Torrekuan. Deitu 76 30 32 telefonora.

Garajea alokairuan Ibargarain. Deitu 76 16 38 telefonora.

Garajea alokairuan Aranerrekan. 76 46 54.

Garajea alokairuan Poligonoan. Deitu 76 32 58 telefonora.

### Errentan hartzeko

Garajea/ganbara alokatuko genuke. Deitu 76 50 00 telefonora.

Garajea alokatuko nuke. 76 05 17.

Burdiñate inguruan garajea errentan hartuko nuke. Deitu 76 70 63 telefonora.

## 3. LOKALAK

### Saldu

Lokala salgai edo alokairuan Masterrekan. 150m². 76 11 89.

Lokala salgai A. Flemingen. 76 00 84/76 35 83.

Lokal komertziala salgai Martokon. 76 25 67.

Taberna bat salgai edo alokairuan Antzuolan. 76 60 16.

### Erosi

Zona industrialean 70 m² inguruko lokala erosiko nuke. Deitu 76 29 95 telefonora.

### Errentan emateko

Bi pisuko lokala alokairuan San Pedron. 150 m². 76 11 64.

Lau gelako bulegoa alokairuan Bolun (osori edo gelaka). Deitu 76 58 91 telefonora.

Uberan 144 m²ko lokala alokairuan. Biltegi edo lantegi txiki baterako egokia. 79 05 63.

San Lorentzoko industrialdean 200 m²ko lokala alokairuan. 76 35 09.

### Errentan hartzeko

Prezio onean, lokala alokairuan hartuko nuke Osintxun. Deitu 76 08 21 telefonora.

40-100 m2 bitarteko bulego baterako lokala alokairuan hartuko nuke Bergaran, herri erdian edo industrialdean. 76 24 33 (21:30-22:30).

## 4. LANA

### Eskaintzak

Andre batek zaharrak zaindu edo etxeko garbiketak egingo lituzke. 76 00 90.

Neska batek astebukaeretan helduak zaindu eta etxeko lanak egingo


**POL-POL**
**Taberna**
☎ 76 07 78



*Francisco J. Lopez de Munain*
Medikua, Medikuntza fisikoko eta Errehabilitazioko espezialista
KONTSULTA ETA ERREHABILITAZIORAKO TRATAMENDUKO ZENTRUA
Aseguru pribatuekiko hitzarmenak
Lagun Aro, Previasa, Trafiko-istripuetakoak eta abar.
Fraiskozuri 8, 1-A. BERGARA. Tf. 76 71 74.

LEGO WATCH SYSTEM
**Orain zeure eskura Etxeberrian.**
Bidekurutzeta 16 BERGARA. Tf. 76 23 94 - 76 12 65.
**ETXEBERRIA** erlojutegia

**ARREGUI, E.M.**
**AROZTEGIA**
AROZLAN MEKANIKOAK
SUKALDEKO ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRUAK
ATEAK, eta abar
TARIMAK-PARKETAK
NEOPRENOZKO JUNTADURAK
EGURREZKO LEIHOAK
PVCzko LEIHOAK
Urteaga 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

lituzke. 76 56 66.

Klinika auxiliar batek gaisoak edo helduak zaintzen ditu. 76 64 47.

Emakume batek astebukaera eta jaiegunetan zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. 76 50 46.

Neska batek orduka lan egingo luke. Deitu 939 47 25 84 telefonora.

Haurrak zainduko nituzke. 76 04 34.

Tabernari lanak egingo nituzke. 76 03 31.

**Eskaerak**

Dendari laguntzailea behar da Bergaran. Bidali datuak 178 postakutxa zenbakira.

25 urtetik beherako mutila behar da lanerako. 76 19 46 (Juan).

Emakumea behar da etxeko lanak egiteko. 76 52 93.

## 5. IRAKASKUNTZA

**Eskaintzak**

OHO klaseak Antzuolan. 78 71 32.

Ingeles klaseak ematen ditut. 76 53 88 (Rosa).

Mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditut LOGSE 2 arte. Deitu 76 24 31 telefonora.

Mate klaseak ematen ditut. 76 03 72 (Nerea).

Mate, fisika eta kimika klaseak. Lizentziatua. 76 70 40.

Fisika, informatika eta mate klaseak. Deitu 76 46 03 telefonora.

OHO eta BBB klaseak ematen dira. Deitu 76 33 26 telefonora.

**Eskaerak**

Bi lagunek frantses klaseak hartuko lituzkete. 76 36 83.

2. Batxilergo Teknikoko fisika klaseak hartuko nituzke. 76 39 15 (Jon).

2. DBHko mate klaseak hartuko nituzke. 76 13 11 (21:00etatik aurrera).

## 6. AUTOAK/MOTOAK

**Saldu**

Golf TDI kotxea salgai. 76 64 70 (Mikel).

Citroen BX kotxea salgai. SS-U. 76 58 00.

Roller jet karabana salgai. 5 plaza. 76 44 05.

T.E.C. King karabana salgai. Lau plaza. 74 31 37.

Opel Corsa 1.200 salgai. 72.000 Km. 76 03 47 (gauez).

Denda karro bat salgai. 76 31 57 (gauez).

## 7. ANIMALIAK

**Saldu/Eman**

Larre behiak salgai. 16 06 16/88 50 07.

Hispaniel-breton txakurkumeak salgai. 907 93 72 71 (Pablo).

Setter txakurkumeak salgai. 76 53 92 (Javi).

Pit-bull txakurkumeak salgai. 79 37 17.

## 8. DENETARIK

**Saldu**

Snowboard taula berria salgai. 1,58 m., 57.000 pezeta. 76 25 03.

Neskaren jaunartze-soinekoa salgai. 76 10 94.

Ziklismoko oinetakoak salgai. 76 01 31.

Taxi geltokia traspasatzen da Antzuolan jubilazioagatik. 76 22 81.

Soinua salgai. 76 56 65.

Super Nintendo kontsola salgai. 76 05 81.

Macintosh Centris 650 ordenagailua salgai. 79 97 60.

Mendiko bizikletak salgai. 76 49 39.

Idazmakina elektrikoa salgai. 76 10 63.

Kanpin denda familiarra salgai. 76 37 96.

Logela salgai: bi ohe txiki, mueble eta guzti. 76 57 05.

Kitarra elektrikoa eta anplikadorea salgai. 76 34 31.

**Erosi**

Aspiradora bat erosi nahi dut. 76 04 86.

**Galdu**

Milagrosa kapilatxoa desagertu da. 76 13 68.

Langai
Euskal Lan Zerbitzua

***FRESATZAILEA***
- Zumarragan kokatutako enpresa baterako.
- Erref. 7218/2

***TEILATU ESTALKIETAKO LANGILEA***
- Deba Behean lan egiteko, ALE bitartez.
- Erref. 7397/5

***KOMERTZIALA***
- Durangaldeko enpresa baterako.
- Erref. 7659/4

***SOFTIMAGE OPERADOREA***
- Bilboko eskualdeko enpresa baterako.
- Erref. 7818/0

***DELEGAZIOKO GERENTEA***
- Bilbonkoo enpresa baterako, ALE bitartez.
- Erref. 7724/2

***ALUMINIO-AROTZERIAKO APRENDIZA***
- Arabako lautadan kokatutako enpresa baterako.
- Erref. 7861/4

***TORNEROA***
- Deba Garaian kokatutako enpresa baterako.
- Erref. 7152/3

**Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

im

# IDIOMASTER - Hizkuntza eskola

**LEGAZPI**

**UDAKO IKASTAROAK INGLATERRAN 1998-UZTAILA** *12-14 urte bitarteko gazteak*

EGITARAUAK ESKAINTZEN DUENA:
- 4 asteko egonaldia Inglaterrako hegoaldean, itsasertzean.
- Egonaldiak bertako familietan izango dira, pentsio osoa barne dela.
- Goizetan klaseak bertako irakasleekin.
- Idiomasterreko monitoreak ere izango dira gaztelaniadun/euskaldunak eta baita koordinatzaile ingles bat ere.
- Kultur eta aisialdiko jarduerak eta bisitaldiak arratsaldeetan, horien artean Londreserakoa.
- Inglaterrarako bidaia eta egonaldian zeharreko bidaia guztiak barne.
- Bidai-asegurua.

Gutxi-gorabeherako prezioa (ibilbidearen araberakoa): 225.000 PTA.

Informazio gehiagorako:
IDIOMASTER Legazpi
Patricio Etxeberria 7, LEGAZPI
Tf. 73 16 51

# Bergarari buruzko ipuin mitologikoa Interneten

## San Joxepe jubilatuen elkarteak bultzatuta, Angelo Cacciolak sortu du

**Angelo Cacciola, Interneten aditua denak, 24 Web orrialde sortu ditu Internet sarean jartzeko. Cacciolak ipuin mitologiko bat sortu du: bertako tradizio zaharrak eta gaur egungo gizartea uztartuz.**

Proiektua San Joxepe jubilatuen elkarteak bultzatu du. Antzuolan antzerako zerbait egin berri dute eta Bergaran ere martxan ipintzea pentsatu zuten jubilatuek, kultur hamabostaldia antolatu zutenean. Jubilatuek euren asmoen berri Udalari eman zioten eta proiektua babesteko dirulaguntza eskatu zioten. Aurrekontua 300.000 pezeta ingurukoa da eta Udalak ordaindu du.



Herriko hainbat argazki ikus daitezke ipuinean.

### Lamiak, trikuharriak eta gaur egungo gizartea

Angelo Cacciola Euskal Herriko mitologian oinarrtu da ipuina sortzeko orduan. Bestalde, herriko jubilatuekin elkartu da antzinako ohiturak, baserri giroa eta lehengo gizartea nolakoak ziren jakiteko. Jubilatuekin izandako saioetatik eta Barandiaranek euskal mitologiari buruz idatzitakoarekin jasotako informazioaz baliatu da ipuina sortzeko.

Ipuina 24 web orrialdetan banatuta dago eta orrialde bakoitzean Bergarako hainbat argazki (mendia, kalea, kobazuloak, trikuharriak, gaur egungo jai giroa...) agertzen dira testuaren lagungarri gisa. Horrez gain, musika ere sartu dio ipuinari. Lamiak eta gaur egungo gazte bikote bat dira ipuinaren protagonsitak.

Euskarri elektronikoan ikus-entzun daitekeen ipuina prest dago, baina testua zuzentzen ari dira. Datozen egunotan aurkeztuko da jubilatuen etxean. Internet sarean sartzeke dago oraindik, baina honako helbide hau izango du: www.elkarkom.com/euskadi/bergara/ipuina. Angelo Cacciolak internetarekin zerikusia duen hainbat proiektu landu ditu Antzuolako Udalarentzat eta etorkizunean horrelako zerbait egin daiteke Bergaran ere. B

# Hamaika taldek joko dute Bergarako jaietan Bideberriko kontzertuetan

**Bergarako jaietan** Bideberrin antolatzen diren rock kontzertuetako egitaraua prestatu dute dagoeneko. Eguakitzean honako hauek joko dute: Elevators (Bergara), Fang (Girona) eta B-Violet (Badalona); zapatuan, berriz, Assholes (Bergara), Athom Rumba (Bilbo), El Desvan del Macho (Arrasate) eta Sexy Sadie (Mallorca). Astelehenean, azkenik, beste lau talde hauek izango ditugu: Saturno, Fly Shit, biak Bergarakoak, Joxe Ripiau eta Hot Dogs (Urretxu). Bergarako Udalak 2 milioi eta erdi pezeta eman ditu Pazkuetako Bideberriko rock kontzertuetarako. B

# Bergarako Orfeoiak Bilboko edo Euskadiko Orkestarekin abestuko du

**Bergarako** Orfeoiaren 75. urteurreneko ospakizunak aurtengo irailean hasi eta 1999ko irailera bitartean izango dira. Irailaren 17an, aurkezpen ekitaldia izango da eta Orfeoiak kontzertua emango du. Bestalde, bi disko konpakto grabatuko dituzte, Orfeoiaren historiari buruzko liburua argitaratuko dute eta *Miserableak* moduko ikuskizuna egingo dute. Horrez gain, hainbat erakusketa antolatuko dituzte eta amaiera ekitaldirako, Euskadiko edo Bilboko Orkesta Sinfonikoarekin batera kontzertu haundi bat egingo dute. Ekitaldi gution aurrekontua 18 milioi pezetakoa da. B


KONDE
PANADEROKUA

Burdinate 1 ☎ 76 02 57

ARRANO
Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
☎ 76 21 80-76 06 37

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak*
Matxiategi 8 ☎ 76 15 09

**erakusketak**

# Ricardo Azkargorta eta Pello Alberdiren margoak ikusgai

## Eibarko Portalean eta Bilboko Berta Belazan

**Ricardo Azkargorta eta Pello Alberdi pintoreek azkenaldian egindako lanak ikusgai dituzte Eibarren eta Bilbon: Rikardo Azkargortak Eibarko Portalea Kultur Etxean eta Pello Alberdik Bilboko Berta Belaza erakusaretoan.**

Ricardo Azkargortak 30 koadro haundi erakusten ditu Portalea Kultur Etxean, Eibarren. Titulurik bareko 30 margoetan, gai sinboliko bera erabiltzen du autoreak: bihotza. Alde batetik, gizakiaren motor moduan eta, bestetik, artistaren sormenerako elementu moduan.

Erakusketa joan zen eguakitzean zabaldu zen eta maiatzaren 5era arte izango da zabalik, astelehenetik eguakitzera 19:00etatik 21:00etara eta zapatuetan 12:00etatik 14:00etara. Bestalde, maiatzaren 22an Donostiako Olaetxea galerian zabalduko duen erakusketa prestatzen ari da dagoeneko pintore bergararra.

Pello Alberdi elgetarrak, bestalde, maiatzaren 19ra arte ikusgai ditu Bilboko Berta Belaza erakusaretoan 21 margolan. Neurri ertaineko koadroak dira eta abstrakzio geometrikoaren ildotik, behin eta berriz errepikatzen diren figurak ikus daitezke: irudi geometrikoak kolore bizien artean nahasten dira.

Elgetarrak, Azkargorta eta Bingen De Pedroren moduan, lehen ere erakutsi izan du Berta Belaza (Arrikibar plaza 5) galerian. Erakusaretoa astelehenetik eguakitzera zabaltzen da goizeko 11:00etatik 13:30ak arte eta arratsaldeko 17:30etatik 21:00ak bitartean; zapatuetan, bestalde, goizez bakarrik dago zabalik. B





Ezkerrean, Pello Alberdiren margolan bat eta, eskuman, Ricardo Azkargortak erakusgai duen lan bat.

**erreseinak**



Xabier Mendiguren
***Gure barrioa 1975***
Eleberria

Denon aberria haurtzaroan dagoela esan ohi da; han gorde ohi dugu gure izate sakoneraren sekretua eta hara itzuli ohi gara behin eta berriz, bidaiaria bere sorterrira bezala. Xabier Mendigurenek hamar urte zitueneko garaiak gogoratu ditu eta Beasain bezalako herri industrial bateko auzuneko mutikoen mundua berreraiki du: bizikletak, txapak, txabolak... Garai hartako giro politikoari buruzko aipamenak ere egiten dira.

*- Elkarlanean. 188 orr. 1.300 PTA*



Etzakit
***Etzakit***
Trikitixa pop

Trikiti bikote moduan hasi ziren orain dela hiru urte eta handik gutxira laukote bihurtu ziren. Euskal Herrian zehar plazarik plaza erromeriak alaitzen ibili dira azkenaldian eta euren kantuak gero eta ezagunagoak dira. Batez ere, euren estraineko diskoa plazaratu berri dutenetik. Arin arina eta Fandangoa, baladak eta erritmo latinoak -Los del Norte Texaseko taldearen bertsioa egin dute "Zergatik" abestian-, landu dituzte. Soinu poperoak eta ekoizpen zaindu eta landua Kaki Arkarazoren ardurapean. Negu Gorriak taldeko kitarrajole izandakoak bi abesti konposatu ditu diskorako eta kitarrak ere sartu ditu hainbat kantutan.

*- Elkarlanean. 2.350 PTA*

SALTSA ETA MERENGE IKASTAROAK
Astelehen eta ostegunetan
19:30-20:30
Prezioa, 4.000 PTA,
JAM Klub-eko bazkideek 3.500.

Egin zaitez JAM KLUBeko bazkide eta aprobetxatu gure abantailak!
5.000 PTAREN TRUKE SARRERA DOAN URTE OSOAN ZEHAR
(ekitaldi berezietan izan ezik)
Informa zaitez Klubaren kultur irteera eta ekitaldiez.

Rolling Stones
San Mamesen ikusteko irteera
Prezioa: 8.000 PTA.
Bidaia eta sarrera
7.500 PTA Klubeko bazkideek

jam
Izen-ematea
76 35 81 telefonoan.

## denborapasa / LUMA



### Ezker eskuma

1. Asteko hirugarren eguna. 2. Ebaki sakona. Galdetzaile-mota. 3. Zorra ordaindua. Oinarrizko edari. 4. Hitz. Andre. 5. Oparo. Asiako estatua. 6. Kontsonantea. Iparraldean, esna. Bokala. 7. Haize. Bizkaiko ibaia. Oxigenoa. 8. Jiraka. Bizkaieraz, gehiegi. 9. Bokala. Nafarroako herria. 10. Euskaraz eta kitto! Gipuzkoako herria. Bizkaieraz, omen.

### Goitik behera

1. Amaigabea. 2. Arloa. Bi. Bokala. 3. Tuterako biztanleak. 4. Modua. Pluralean, landare arantzaduna. 5. Guraso arra. Azkenekoa. Suari dariona. 6. Zaunka ari izaten dean. 7. Potasioa. Kemen. Jainko egiptoarra. 8. Ukatzeko. Erbioa. Bihi. 9. Nirea. Sarrera. 10. Kolore-mota. Iparraldean, orain.

*Soluzioa*

*Ezker eskuma*

1. Asteazkena. 2. Zauria. Zer. 3. Kitatua. Ur. 4. Ele. Andere. 5. Naro. Korea. 6. G. Atzar. A. 7. Aire. Lea. O. 8. Biraka. Lar. 9. E. Akerreta. 10. AEK. Aia. Ei.

*Goitik behera*

1. Azkenekoa. 2. Saila. II. E. 3. Tuterarrak. 4. Era. Oteak. 5. Aita. Z. Kea. 6. Zaunkalari. 7. K. Adore. Ra. 8. Ez. Er. Ale. 9. Neurea. Ate. 10. Arrea. Orai.

## bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

***Etxe honen izena bere sarreran irakur daiteke. Zein da?***

## galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Ze izen dauka Txotxongiloen Mostran parte hartuko duen talde galestarrak?
A- Green ginger
B- Green day
C- Ginger & Fred

2. Ze kotxe lasterketa jokatuko du asteburuan Aitor Zabaleta auto pilotuak?
A- Arrateko Igoera
B- Fitoko igoera
C- Ubriqueko igoera

3. Ze jesuita bergarar jaio zen 1899ko apirilaren 23an?
A- Domingo Martinez de Irala
B- Koldo Eleizalde
C- Prantzisko Agirreolea

*Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Antxoni** jatetxean izango dute afaria.*



Aurreko aleko saria, **Arantxa Garmendia**rentzat izan da: Leku-Berri merenderoan bi lagunendako afaria. Zorionak Arantxari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
Bonofotoa: **Belanbide**.
Galde Debalde: **1-B, 2-B, 3-C**.

**BONOFOTOA** ______________________

**GALDE DEBALDE** *1:* ______ *2:* ______ *3:* ______

Izena-deitura: ______________ Telefonoa: ______________

*Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!*

ANTXONI
Jatetxea
Fraiskozuri 7 BERGARA
Telefonoa: 76 20 40

**Aitona eta aita ileapaintzaileak izanik, "Pepelu"k tradizioari eutsi zion lanbidea aukeratzean. 17 urterekin hasi zen lanean eta duela 10 urte Bergaran ileapaindegia ireki zuen. Ezkonduta, Maria izeneko alaba daukate otsailetik.**

# Juan Manuel Agirrezabal



**Zergatik "Pepelu"?**
Aspaldiko ezizena, "Pepelukero"tik dator.
**Zer izan nahi zenuen txikitan?**
Ideiarik ere ez.
**Ikasle ona zinen?**
OHOrarte bai, hortik aurrera ez hainbeste.
**Zenbat buru moztuko zenituen honezkero?**
Ezinezkoa da kalkulatzea.
**Zuri, nork mozten dizu ilea?**
Aitak normalean.
**Noiztik daukazu bizarra?**
Aspalditik.
**Ilea, motza ala luzea?**
Ez motza ez luzea, orrazteko modukoa.
**Zenbatero mozten duzu?**
Lau hilabetetik behin edo....
**Lan gehien, noiz?**
Udan.
**Ilea motz-motz moztuko zenuke?**
Ez.
**Eta burusoil geratuz gero, pelukina erabiliko zenuke?**
Ezta.
**Nori moztuko zenioke ilea?**
Anasagastiri ez behintzat!! (barre). Ez dakit, Rappel-i beharbada.
**Ile kolore bat?**
Beltzarana,
**Top model bat?**
Elle McPherson.
**Hobby bat?**
Arrantza.
**Zenbatero joaten zara?**
Ia astero baina orain alabarekin gutxiago...
**Itsasoan ala errekan?**
Biak baina errekan gehiago ibiltzen naiz.
**Arrantzan egiteko beharrezko kualitatea?**
Pazientzia.
**Arrantzan egitera nora joatea gustatuko litzaizuke?**
Kanadara.
**Sukaldari ona zara?**
Nahiko ona, bai.
**Zure espezialitatea?**
Makailoa.
**Zerk jartzen zaitu sutan?**
Zaila da ni haserretzea; nahiko lasaia naiz.
**Eta barre, zerekin egiten duzu?**
Barre errez egiten dut.
**Alabari erositako lehen gauza?**
Zapatatxo batzuk.
**Telebistako programarik onena?**
TVE-2ko dokumentalak.
**Eta txarrena?**
*"Sorpresa, sorpresa"*.
**Zein postutan sailkatuko da Athletic ligan?**
Hirugarren, ondoren Reala.
**Aranzabalek mundiala jokatuko du?**
Baietz uste dut.

TABERNA ZAHARRA
Jatetxea
bazkari eta afariak
Telefonoa: 76 21 21
ANGIOZAR

ARTISAUTZAKO IZOZKIA
GOXO-TOKI
D. Irala, 3 - Tlf. 761235
Matxiategi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

Deco-Textil
ZANGITU
Etxerako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.
Herrilagunak 3-5
☎ 76 08 69


Udaberri-Udarako modarik berriena. Koloretsuena. Zain daukazu!
MARGA
jantzidenda
San Pedro 20. Bergara. Tf. 76 05 37

Maiatzaren 3a
Amaren Eguna

...eskertuko dizu.
Gracian
USAINDEGIA-MERTZERIA
Bidekurutzeta 6
Tf. 76 10 25



# Herriko ospitalean 1944

Gaur egun Mizpirualde zaharren egoitza dagoen tokian, lehengo Ospitalean, herriko askok eta askok ikasi zuten garai batean, eskolak baitzeuden bertan.

Klaseak hartu ezezik, era askotako jarduerak egiten zituzten: antzerkia, dantzak...

Horren lekuko, argazkian agertzen den emakume taldea, dotore asko dantzari jantzita.

Hauek dira argazkian agertzen direnak, ezkerretik hasita:

**Goian:** Maite Aranburu, Amparo Astiazaran, Ester Biziola eta Maria Pilar Agirregabiria.

**Behean:** Lide Oregi, Dolores Arriaran, Miren Suinaga, Gotzone Aranburu, Juanita Argarate, Estefani Aragon, Konsuelo Larrea, Rosita Agarate eta Felicitas Suinaga.

**OHARRA**

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARAra bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!

ileapaindegia
eder gela
—disdira—
Masterreka 7 • Tf. 76 00 55

Zumelaga
JATETXEA
ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!
San Antonio 5 BERGARA ☎ 76 20 21

MEMESA
INDUSTRI HORNIDURAK
Tf. 943 71 24 25

# Gidari onenek OHOREZKO-MATRIKULA merezi dute

## Aldatu zaitez MAPFREra

Azkartu  itzazu zure bonifikazioak

**Orain** zure automobilaren asegurua aldatzea **ez zaizu ezer kostako.**
**Mapfreren Ohorezko Matrikula Planarekin,** oraingo polizaren antiguedadeari eutsiko diozu (95.1.1. baino lehenago edozein konpainiatan kontratatutako polizetarako baliagarria).
Lor ezazu **bonifikaziorik haundiena denborarik motzenean.**

**MAPFRE**

Argibideak: Simon Arrieta plaza 3, BERGARA. Tf. 76 18 80.

# Pack Joven






Eta orain
Erloju Deportibo bat Opari

17.500 pta

*Sei hilabetetarako Ukipen Lenteak eta Soluzioen Pack-a.*



Egun oso batez gozatu, eta gero agur.

bakarrik **19.900** pta.gatik

Proba ezazu egun batez

SofLens one day

**Eguneroko Botatzeko Ukipen lenteak**



2 kaja erosteagatik (3 hilabetetarako lenteak), **Eguzkitarako Betaurreko batzuk opari.**



MOTO HONEN ZOZKETA GURE BEZERO ARTEAN

MULTIOPTICAS

**Eta ordaintzeko orduan, abantaila ugari :**
- **MULTIOPTICASen kreditu-txartela. Diru barik erosteko modurik errazena.**
- Ordainketa **30, 60** edo **90** egunetan atzeratzeko modua izango duzu, batere errekargu barik.

GAZTE TXARTELA CARNET JOVEN
GAZTE TXARTELA baldin badaukazu, erabili ezazu Multiopticas-en.

TRAVEL CLUB Compras y Disfruta

LORTU EZAZU MULTIOPTICAS-en «TRAVEL CLUB» PROGRAMAKO PUNTUAK

# MULTIOPTICAS

| LARRAÑAGA | | | EIBAR | ERRENTERIA |
|---|---|---|---|---|
| Ibargarai,16 | J.Carlos Guerra,1 | J.M. Barandiaran Enp. | Bidebarrieta,2 | Pl. de La Esmaltería,7 |
| Tel. 943 761575 | Tel. 943 792995 | Tel. 943 889988 | Tel. 943 200522 | Tel. 943 517811 |
| **BERGARA** | **ARRASATE** | **ORDIZIA** | **EIBAR** | **ERRENTERIA** |

# JAKINA

**FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakar**



AENOR
Produktu zertifikatua

6 URTEKO GARANTIA

**FAGOR**
Sukaldeko altzariak

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldea

San Lorentzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.
Telefonoa: 76 03 30. Faxa: 76 02 91.